



eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN**

Eraberean Sarearen jarduera
2021ean eta 2022an

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN**

Eraberean Sarearen jarduera 2021ean eta 2022an

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:

1.a, 2023ko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Komunikazioaren Zuzendaritza.
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

Inprimaketa:

L.G.:

aurkibidea

1. MARKO TEORIKOA: EAEKO DISKRIMINAZIOAREN IRUDIA **5**

2. ERABEREAN SAREAK 2021EAN ARTATUTAKO KASUEN INGURUKO TXOSTEN Kuantitatiboa. Taulak eta grafikoak **29**

Aurkezpena	31
Informazio soziodemografikoa	34
Biktimen profil soziodemografikoa, begiradaren arabera	47
Diskriminazioaren arloak	54

3. ERABEREAN SAREAK 2022AN ARTATUTAKO KASUEN INGURUKO TXOSTEN Kuantitatiboa. Taulak eta grafikoak **67**

Aurkezpena	69
Informazio soziodemografikoa	70
Biktimen profil soziodemografikoa, begiradaren arabera	82
Diskriminazioaren arloak	90

4. ERABEREAN SAREAREN KASUEN LEHENENGO PLANOAK **103**

5. ERABEREAN SAREAK ARTATUTAKO PERTSONEI EGINDAKO ELKARRIZKETAK **133**

“Ijitoen aurkako jarrera eta sare sozialak” artikulua	135
Laneko abusuaren biktima izandako migratzaile batzuei elkarrizketa	139
LGTBifobiak eragindako eraso baten biktimari elkarrizketa	143

1. MARKO
TEORIKOA: **EAEko**
DISKRIMINAZIOAREN
IRUDIA

1. MARKO TEORIKOA: EAEKO DISKRIMINAZIOAREN IRUDIA

Abdou ez du ikusten. Gaixotasun bat du begietan eta ikusteko zailtasun handiak sortzen dizkio. Abdou ONCEra joan zenean elkartearen parte izateko, jakinarazi zioten ONCE Fundazioaren estatutuek debekatu egiten dietela Espainiako nazionalitaterik ez dutenei elkartearen parte izatea. Bera Senegalekoa da, eta ez du Espainiako nazionalitaterik, Espainiako emakume batekin ezkondu dagoen arren. Europar Batasuneko Familia Txartela du. ONCErentzat ez da nahikoa. Abdou kanpoan geratzen da.

M-k gizon itxura du baina emakume sentitzen da. Behin, gona jantzita joan zen Donostiako taberna batera lankide batekin. Tabernaren atean zegoen Segurtasuneko pertsonak, gona ikusita, ezin zela barrura sartu esan zion eta prakak jantzi behar zituela. Azkenean, lankideak segurtasunekoarekin hitz egin eta gero, hark amore eman zuen eta sarrera ordainduta sar zitekeela adierazi zion. Hala ere, gertatutakoaren ondoren, ez sartzea erabaki zuten. M-ri gaua zapuztu zioten eta beste zerbait ere bai: duintasuna.

Alicia Bilbokoa da betidanik. Arratsalde batean, bere errainarekin eta bilobekin paseatzen ari zela, C. dendara sartzea erabaki zuen, garbiketako produktuak erosteko. Establezimenduko atea zabaldu zuenean, saltzaileak esan zion ezin zuela sartu. Aliciari ez zuen ulertzen. "Zergatik?" saltzaileak erantzun zion: "Ijitoak zarete eta lapurtzera zatozte haur-kotxearekin" Udaltzaingoari deitu zioten. Udaltzainak azaldu zien ezin zutela erreklamazio-orririk jarri bezeroak ez zirelako. Salaketarik ere ez zioten jaso, egin behar zuten arren, hala jakinarazi baitzioten Aliciari gerora Kontsumobiden. Alicia dendari eta polizia salaketa jartzea pentsatzen ari da.

Bi emakume beltz, jatorriz Nigeriakoak, autobus geltoki batean zeuden Gasteizen. Autobusa pasatu zen baina ez zen gelditu, nahiz eta emakume biek eskua altxatu zuten autobusa gelditzeko eskatuz. Aurreraxeago zegoen semaforo gorria baliatuz, lortu zuten azkenean autobusera igotzea. Behin barruan, gidariari behin eta berriz galdetu zioten zergatik ez zen gelditu eta hark hala erantzun zien:

“Zoazte pikutara, lotsagabe halakoak! Geratu zuen herrialdean, hori da egin behar duzuen! Eta, gainera, emakumeak isilarazi zituen: “lotsagabea, isil zaitez behingoan! Daukazuen diru guztia botiketean gastatu behar izatea opa dizuet! Gero arte, lotsagabe ahalenak!”

M. Galiziakoa da. Lan bila ari zen eta A. Merkataritza Zentroko txakurrentzako ile-apaindegian lan-eskaintza bat zabalik zegoela jakin zuen, Bizkaian. Aurkeztu eta ondo egin zuen telefono bidezko elkarrizketa. Hautatu eta kontratatu egin zuten. Euskadira lekualdatu zen. Lehen lan-egunean lankideak konturatu ziren M- transexuala dela eta mespretxuzko ezizen transfoboak erabili zituzten. Arratsalde horretan bertan, dendako arduradunak borondatezko laneko baja hartzeko gonbita egin zion.

Egoera horiek 2021ean eta 2022an gertatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE). Diskriminazioa deituriko eguneroko errealitatek atera daitezkeen fotograma askoren bost adibide dira, eta ijitoen herria, etorkinen eta/edo arrazializatuen kolektiboa eta transexualena osatzen duten gure bizilagunei eragiten die.

Arlo sozialeko erakunde pribatu eta publikoak irudikatzeko zereginean jarduten dugun arren, hobetu ezagutu ahal izateko, diskriminazioa irudikatzeko zaila den helburua da oraindik ere, eta atal honetan batez ere lehenengo plano horien ekarpena egingo dugu. Horiek dira Eraberean Sareak, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Sareak, artatzen dituen diskriminazioaren biktima izan diren pertsonak oinarri dituztenak. Horretarako, atala **zati** hauetan banatu dugu:

1. Diskriminazioaren erretratua egitea.
2. Jo-puntuan: Laukiratzeko objektuaren kontzeptua mugatzea.
3. Ikuspuntua: Hautemandako diskriminazioa edo 1. pertsonan aitortutakoa?
4. Fokuratzea: Arloak eta motak fokuratzea, diskriminazioa ikusteko.
5. EAEko diskriminazioaren panoramikak eta plano orokorrak.
6. Ehun eta hogeita bat lehen plano.
7. Lau arlo xehetasun-planoetan.

Beraz, has gaitezen diskriminazioaren erretratua egiteko jardueraren inguruko ohar batzuetatik.

1. DISKRIMINAZIOAREN ERRETRATUA EGITEA

Gure ingurune sozialaren (gure auzoen, pertsonen arteko gure bizikidetzaren, gure herritartasun-patroien...) irudi batzuk ez daude osatuta. Begiratu gero zerbait falta zaienaren sententzia izaten duzu. Edo lausoak daudela. Edo oso editatuak daudela, artifizialak direla. Begiratu gero, antzematen duzu ez dutela erretratatuak ordezkatzeko helburua betetzen, izan argazkiaren errealitatea oso zabala delako edo oso aldakorra delako, edo poliedrikoa. Gerta daiteke baita ere errealitatea ikusezina izatea argazki-kamera baten begietan. Edo aurreko arrazoi guztiak batera. Hori da hain zuzen ere gizarteko diskriminazioari buruzko argazki askori gertatzen zaiena, txosten hau oinarritzen den ingurune sozialaren zatira mugatzen bagara.

Izatez, diskriminazioa, argazkia atera beharreko elementu gisa, argazki batean harrapatzen uzten ez den "objektua" da. Hainbat arrazoiengatik.

Lehen, **mugimenduan** dagoelako. Zerbait estatikoa ez denez, aldakorra baizik, argazkiak ateratzeko saiakerak argazki lauso batekin amaitu ohi dira.

Bigarrenik, diskriminazioa leku ezkutuetan edo erdi-ekzutuetan gertatu ohi da, gurea bezalako gizarte demokratikoena baimenduta ez dagoen tratu desberdina emategatik isunak edo zigorrak jartzea ekiditeko. Alde horretatik, diskriminazioa, metaforikoki esateko, leku **ilunetan** gertatzen denez, beharrezkoa da kameraren obturadorea asko zabaltzea argazkia atera ahal izateko.

Hirugarrenik, diskriminazioa gauza **likidoa** da, Zygmunt Baumanen terminologia erabilia, eta argazkilaritzako zoomik irekienek ere ez dute lortzen guztia hartzea. Hain likidoa izanik, aurrera egiten du eta eguneroko arlorik txiki eta ikusezinenetan ere sartzen da, baita pribatuetan ere. Izan ere, diskriminazio oro da azken finean egiturazkoa, oinarria sistema sozialaren egitura dominatzaileetan baitago, eta, gero, diskriminazio instituzionalean edo pertsonen arteko diskriminazioan zehazten da, besteak beste. Alde horretatik, gogora ditzagun normalean erabiltzen ditugun hiru diskriminazio motak, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak bere glosarioan jasotzen duen moduan:

- *Egiturazko* diskriminazioa: Gizarte-egituraren berezko "tresna orokorretatik" eratortzen direnak dira, egituraren praktiketarik eta horrek dakartzen

desberdintasunetatik. Zeharka hautematen da bigarren mailako iturrien bidez, funtsean, estatistiketatik.

- Diskriminazio instituzionala: Arlo instituzionalean tratu-berdintasuna betetzen ez denean eta araudietatik eta administrazioako jarduketetatik marko instituzional diskriminatzailea planteatzen denean sortzen da.
- Pertsonen arteko *diskriminazioa*: *Pertsonen artean zuzenean gertatzen diren diskriminazio-ekintzak dira, banakako diskriminazioa, askotarikoak izatera hel daitezkeen aktoreekin.*

Likidotasun handi horregatik, EAEko diskriminazioari argazkia ateratzeko orduan, zeregin horretan murgiltzen garen hainbat erakunderen abiapuntua da gure argazkia partziala izango dela. Are gehiago, egiaztatuko dugu "kamera" desberdinekin egindako argazki guztien elkarketak soilik (hau da, **argazkien osaketa**) hurbil gaitzakeela diskriminazioaren ezagutza zabalago batera, pieza askok osatutako puzzlea izango balitz bezala.

Puzzle horren barruan, **irudi panoramiko**a, besteak beste, Ikuspegi Behatokiak eskaintzen du. Zoom metodologiko baten bitartez egiten du; EAEko diskriminazioan azterketa kuantitatiboaren ekarpena egiteko zabaltzen du. Zoomen irekiera horren emaitza da, esaterako, *Euskadiko diskriminazioaren inguruko pertzepzioen eta jarreraren inkestaren azterketa*, 2020ko azaroan egina, EAEko hiru lurralde historikoetan egindako aurrez aurreko eta etxeetako 1.200 inkestetatik abiatuta. Nabarmentzekoak dira horrez gain *Diskriminazioa eta dibertsitatea EAEn: ikuspegiak, arloak eta kolektiboak* 2021eko uztailan argitaratua eta NEURTU 2021, *EAEko dibertsitateari buruzko barometroa: sexu- eta genero-dibertsitatearen inguruko pertzepzioak eta jarrerak* ikerketak. Azken horren xedea da, hitzez hitz, oro har dibertsitatearen inguruan, eta zehazki sexu- eta genero-dibertsitatearen inguruan euskal gizarteak nola "arnasten" duen ezagutzea.

Egia da panoramikoak ez direla dibertsitateari buruz egin daitezkeen argazki bakarrak. Beste mota asko daude, hartu nahi den planoaren arabera.

Batzuetan, argazki bakar baten helburua da plano orokor bat hartzea. Beste batzuetan, hainbat argazki egiten dira **argazki-sekuentzia** bat osatzeko. Kategoría horren barruan,

Euskal herriko Unibertsitateko (EHU) Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren enkarguz eginiko *2021eko Euskadiko Gorroto Delituen Txostenak* eskaintzen duen funtsezko argazkia aipa dezakegu. Txosten horrek Euskadiko poliziak (Ertzaintzak) bildu dituen gertakariak eta delituak izan daitezkeen jazoerak (gorroto-delituak eta administrazioko arau-haustek) jasotzen ditu, gero aztertzeko.´

Gorroto-delituei buruzko txostena diskriminazioari buruzko panoramika gisa sartzeari dagokionez, puntu honetan eten bat egin nahiko genuke gorroto-delitu eta diskriminazio terminoak argitzeko. Jakin beharreko lehen gauza da gorroto-delituaren definizioa ez duela bere horretan jasotzen Zigor Kodeak. Doktrina da Zigor Kodeko delitu jakin batzuk gorroto-delitu gisa definitzeko edo katalogatzeko orduan nolabaiteko ulermena lortu duena, baldintza jakin batzuk betetzen baditu delitu horrek. Baldintza horiek dira talde baten edo talde bateko kide baten aurkako gorroto-motibazioa, areriotasuna, diskriminazioa edo indarkeria. Horregatik, gorroto-delitua Zigor Kodean jasota egon beharko litzatekeen jokabidea da lehenik, eta, bigarrenik, motibazio horietako batek eragiten du. Horien artean dago diskriminazioa, hau da, pertsona edo talde batzuei tratu txarragoa ematea haien jatorri etniko edo nazionalarengatik, erlijioarengatik, adinarengatik, iritziarengatik, lehenetasun politikoarengatik eta sexualarengatik, osasun-baldintzearengatik, desgaitasunarengatik, egoera zibilarengatik edo beste arrazoi batzuek, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

Bien bitartean, eta diskriminazioari argazkiak ateratzeko dauden modu desberdinetara itzuliz, **argazkien bankua** beste argazki batekin ere osatzen da, eta argazki hori da Eraberearen Urteko Txosten honek eskaini nahi duena. Pieza kualitatiboa da zehazki, eta Sarera heltzen diren kasu zehatzen **lehen planoak edo plano zehatzak** egitea da abiapuntua. Horiekin bilatzen duguna da argazki orokorra gizatiartzea, biktimen banakako istorioekin.

Estatistiketan beti agertzen ez diren edo organo polizial edo judizialean salatzen ez diren diskriminazio ikusezinaren edo egunerokotasuneko diskriminazioaren **fotogramak (lausoak izan arren)** egitea ere badugu helburu Eraberean Sarean. Azken horiei dagokienez, aipatu behar dugu gorroto-delituen kopuru beltza (hau da, salatzen ez direnak, hots, poliziak eta segurtasun-indarrek ezagutzen ez dituztenak) gertatzen diren

delituen % 80 izan daitezkeela, Funtsezko Eskubideen Europako Agentziaren datu-basean oinarrituta egindako ikerketen arabera.

Fotograma lausoak, lehen plano eta plano zehatzak, eta argazki panoramikoak egitea (gero argazkien osaketa egiteko) da diskriminazioaren argazkiak egiteko zeregina dugun erakunde, instituzio eta sareon zeregina, hori baita jorratu aurretik dugun abiapuntua.

2. JO-PUNTUAN: LAUKIRATZEKO OBJEKTUAREN KONTZEPTUA MUGATZEA.

Diskriminazioaren argazkia egiteko orduan, eta erretratatu beharreko objektua laukiratu aurretik, egin beharreko lehenengo urratsa da laukiratzean zer sartuko den eta zer ez erabakitzea. Beste modu batera esanda, **zer da diskriminazioa eta zer ez?**

Eraberean Sarearentzat, diskriminazioa ezaugarri fisikoengatik, jatorri etnikoagatik, genero-orientazio eta/edo identitatearengatik edo erlijioarengatik (beste arrazoi batzuen artean) bereiztea, baztertea edo mugatzea da, eta ondorioz, funtsezko eskubide eta askatasunei kalte egitea. Hala, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearekin bat egiten du, honela definitzen baitu diskriminazioa 18. Ohar Orokorrean:

Arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelako edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza sozial eta antzeko arrazoietan oinarritzen den bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasuna da, eta pertsona guztien giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aintzatespena, gozamina edo egikaritzea deuseztatzea edo kaltetzea du xede edo ondorio (Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea, 1989: 2).

Beste **definizio** batzuek, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 111 Hitzarmenean jasota dagoenak esaterako (enpleguaren eta lanaren arloko diskriminazioari egiten dio erreferentzia), honela definitzen dute: "Arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, jatorri nazional edo jatorri sozialeko arrazoietan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo lehentasun, aukera- edo tratu-berdintasuna deuseztatzea edo aldatzea dakarrena".

Garrantzitsua da nabarmentzea diskriminazioak ez duela **dimentsio indibiduala** soilik hartzen, baita **taldekoa** ere. Izatez, Fernando Rey Martinez katedratiko eta legelariaren arabera, diskriminazioa talde jakin baten aurkako aurreiritzian oinarritutako jokabidea da ororen gainetik. Alde horretatik, diskriminazioak aipatutako bi dimentsioak hartzen ditu: indibiduala, gizakiaren duintasunarekin lotuta dagoena; eta taldekoa (objektibo-instituzionala), fokua diskriminatutako pertsona parte den taldean jartzen duena.

Diskriminazioaren bigarren dimentsio hori da gehiengo taldearen mende dauden gutxiengo taldeek osatzen duten egiturazko elementuen adierazpena. (Eta Rey Martinez irakasleak gogorarazten duen moduan, zuzenbideak desabantailan dagoen taldea modu desberdinean tratatzen ez badu, mendekotasun hori finkatu egiten da azkenerako. Diskriminazio negatiboaren aurrean, diskriminazio positiboak kolektibo jakin bateko pertsoneri eragiten dien egiturazko diskriminazioa zuzendu eta konpentsatzeko balio du).

Hori beste gai batekin dago zuzenean lotuta, kasu honetan, **diskriminazioaren arrazoiekin**. Pertsona bat gehiengoarekiko desabantailan egoteagatik talde kaltebera bateko kide izateari buruzkoak izan ohi dira (sexu-identitatea, jatorria, erlijioa, etab.) Hala ere, gutxiengo talde bateko kide ez diren pertsonen aurkako diskriminazioa ere badago: esaterako, emakumeen edo adinekoen aurkakoa.

Kontzeptuak argitu ondoren, diskriminazioa zergatik gertatzen den galdera zailari erantzuteko, lehenik eta behin, **estereotipo eta aurreiritzietara** jo behar da, diskriminazioa baita estereotipoarekin hasi eta aurreiritziarekin eta ondoren diskriminazioarekin jarraitzen duen katearen hurrengo ekintza¹. Rey Martinezek argi adierazten du aurreiritzia karga ideologikoarekin sortzen dela: diskriminazioaren munizio ideologikoa da.

¹ Gogoan izan behar da estereotipo bat oro har onartua dagoen irudi edo ideia dela, eta, ondorioz, talde edo pertsona mota jakin bati ezaugarri batzuk esleitzen zaizkiela. Taldeko kide guztiei ezaugarri mota berberak esleitu ohi zaizkie, eta ez da pertsona bakoitzaren ezaugarrien analisi objektibo eta zehatzik egiten. Aurreiritzia ezagutzen ez den pertsona bat epaitzeko unean sortzen da, edozein ezaugarri edo azaleko arrazoitik abiatuta iritzi edo epai bat sortzean, gehienetan negatiboa.

Munizio ideologikoaren aipamen horrek diskriminazioaren erroan dagoen arrazoiria garamatza; hau da, **egiturazko elementura**. Egiturazko diskriminazioa gutxiengo talde edo kolektibo batek pairatzen duen desberdintasun-egoeretan islatzen da, eta desabantailazko egoera hori belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Gutxiengo talde edo kolektibo horiek hezkuntzan, enpleguan, osasunean, etxebizitzan, ordezkaritza politikorako espazioetan, edo aitortza sozial mugatuan dituzten zailtasun gehigarrietan islatzen da, askotariko arloetako batzuk aipatzearen.

Polemikarik gabea izan ez den arren, egiturazko ezaugarria aitortu du Europako Batzordeak 2020-2025erako Arrazakeriaren Aurkako EBko Ekintza Planean. Plan horretan honela dago jasotako egiturazko arrazakeria:

Arrazakeria sakon errotuta dago maiz gure gizartearen historian, eta erroekin eta arau kulturalekin uztartzen da. Gizarteak funtzionatzeko duen moduan, boterearen banaketan eta herritarrek estatuarekin eta zerbitzu publikoekin erlazionatzeko moduan ikus daiteke. Inkontzientea izan daiteke eta askotan igartzen da ez dituela arrazismoak kaltetutako pertsonen interesak islatzen, baztertzeko ahalegin zuzena izan ez arren halabeharrez. Egiturazko arrazakeriaren eragina arrazakeria indibiduala bezain sakona eta kaltegarria izan daiteke, eta aitortu eta jorratu egin behar da politika proaktiboan bitartez. Ikuspegi interseksionalak egiturazko arrazakeriaren ulermenean sakontzen du eta erantzunak eraginkorrago egiten ditu. Este abordaje interseccional de la discriminación estructural es necesario en el análisis de todos los casos de discriminación que se producen en nuestro entorno social en general, y en las situaciones atendidas por la Red Eraberean en el caso particular que nos ocupa.


Egiturazko diskriminazioa interseksionalitatik jorratzea beharrezkoa da gure ingurune sozialean oro har gertatzen diren diskriminazio-kasu guztiak aztertzeko, eta gure kasu zehatzean, Eraberean Sareak artatzen dituen egoerak aztertzeko.

Izatez, egiturazko desberdintasunak bertikalean zeharkatzen du gorrotoaren piramidean deiturikoa, eta hala jorratzen dugu Saretik. Diskriminazioaren maila zehatzean kataloga daitezkeen egoerak lantzeko orduan egiten dugu, eta baita beste maila batzuetan katalogatzen diren eta osagai diskriminatzailea duten kasuetan ere. Jarraian ageri den

gorrotoaren piramidea Fadek eta Maldita.es-ek eginak dira No More Haters proiektuaren esparruan, eta maila desberdinak azaltzen ditu:



Halaber, ikusi SOS Racismek argitaratzeko egin duen infografia interesgarria; *Gorrotodiskurtsoa identifikatzeko eta horren aurrean jarduteko gidaliburua.*



Irudi honek gorrotoaren eskala progresiboa marrazteaz gain, ondo adierazten du **batzuetan ikusgarria eta besteetan ikusezina den tartea** dagoela. Bertan dago hain zuzen ere diskriminazioa. Eta olatuak, itsas maila, haizea eta abar dira diskriminazioa ikusgarri edo ikusezin egiten dutenak.

Ikusi ala ez, hor dago. Eraberean Sarearen zeregina da identifikatzea eta txosten hau bezalakoetan “argazkia ateratzea”. Horretarako, ez dugu **teleobjektiboa** erabiltzen, **objektibo arruntak** eta **objektibo makroak** baizik, diskriminazioa begiratu, aztertu eta argazkia egiteko ikuspegia erabaki ondoren fokuratzea lortzeko.

3. IKUSPUNTUA: HAUTEMANDAKO DISKRIMINAZIOA EDO 1. PERTSONAN AITORTUTAKOA?

Aurreko atalean zehaztu dugu argazkia egin beharreko objektua zein den, eta azterketan kontuan hartu beharreko hurrengo kontua ikuspegia izango da, kamera non jarri jakiteko. Nondik ateratzen diogu argazkia diskriminazioari? Kamera gizartean kokatuko dugu, diskriminazioa bere inguruan ikusi eta hautematen duelako, eta inkestatua delako, biktima zuzena zein eragile diskriminatzailea ez izan arren? Diskriminazioa jasaten duten eta ondorioz horren berri ematen duten biktimgan, salaketa jarri zein ez? Diskriminazioaren lekuko direnengan? Kasu zehatzei erreferentzia egiten dieten eta zenbatzen dituzten dokumentu-erregistroetan?

Ikuspegi Behatokiak gai honi erantzuteko **hautemandako diskriminazioa** eta **bizitako diskriminazioa (edo aitortutakoa)** bereizten ditu bere txostenean. Lehenengo euskal gizarteak hainbat egoera edo testuingurutan (lanean, etxebizitzan, eskubideen eta zerbitzuen sarbidean) izandako tratu bidegabeari buruz duen pertzepzioa da, izan sexuagatik, arrazagatik, jatorriagatik, uste politikoengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-orientazioagatik. Bigarrenak erreferentzia egiten die pertsonak edo ingurukoek zuzenean pairatutako egoera edo gertakari diskriminatzaileei. Zehazki:

- Zuzenean bizitako diskriminazioa: Pertsonak berak zuzenean pairatutako egoera edo gertakari diskriminatzaileak.
- Zeharka bizitako diskriminazioa: Inguruko pertsonak zuzenean pairatutako egoera edo gertakari diskriminatzaileak.

Halaber, bizitako edo aitortutako diskriminazio horren barruan beste mi mota bereiz daitezke.

- Lehenik eta behin, azterketa eta ikerketa ugarik **diskriminazio espontaneo** deiturikoa egongo litzateke. Ekintza diskriminatzaileen balizko biktimak izan direnek (edo ekintza horien lekukoek) haien borondatez adierazten dituzten diskriminazioak dira. Adierazpen espontaneoak direla esan ohi da ez dagoelako inkesta edo gidoi itxirik jarraitu eta erantzun beharrik, diskriminazio hori jasan dutela adierazten dute horri buruz galdetu gabe.

- Bigarrenik **dokumentatutako diskriminazioa** egongo litzateke. Aurrekotik duen desberdintasuna da pertsonen galdetu egiten zaiela ea arlo jakin batean diskriminazioa jasan duten, hala nola enpleguan, etxebizitzarako sarbidean, aisialdi-lokaletako tratuan... Bigarren mota honetan, diskriminazio-datuak altuagoak dira modu espontaneoan aitortutako egoeretan baino.

Jar dezagun adibide bat. CEDREk 2020an ² egin zuen *Arraza edo etniagatik jasandako diskriminazioaren inguruan balizko biktimek duten pertzepzioa* inkestaren arabera, inkestatutako 10 pertsonatik 3k diskriminazio motaren bat jasa zuen 2020an jatorri etnikoarengatik (% 30). Alabaina, egoera edo arlo zehatz bati buruz galdetuta (hau da, ea lana bilatzerakoan, etxebizitza bat alokatzen ahalegintzean edo denda batera sartzean diskriminatuta sentitu ote ziren galdetuta), % 52 adierazi zuen diskriminatuta sentituta zela aipatutako egoeretako batean gutxienez.

Modu espontaneoan adierazitako diskriminazioaren eta dokumentatutako diskriminazioaren arteko tartearen arrazoia da ekintza diskriminatzaile batzuk ez direla hala hautematen.

Eraberean Sarean modu espontaneoan adierazitako diskriminazio-kasuekin egiten dugu lan batez ere, baina **zabalpen-tailerrak** ere antolatzen ditugu, eta erabiltzaileak gonbidatzen ditugu haien eguneroko errealitatea birpentsatzera arlo desberdinetan izan ditzaketen diskriminazioen ikuspegitik. Tailer horien bitartez dokumentatutako diskriminazioaren kasu berriak identifikatzen ditugu.

4. FOKURATZEA: ARLOAK ETA MOTAK FOKURATZEA, DISKRIMINAZIOA IKUSTEKO.

Dokumentatutako diskriminazio-kasuen bilaketari dagokionez, diskriminazioa arloka bereizteak ikuspegia bideratzen laguntzen du diskriminazio-egoerak diagnostikatzerako orduan. Ez da gauza bera kamera bere tripodearekin ingurune sozial zabalaren aurrean jartzea edo zooma ixtea eta laukiratzea egokitzea, objektu edo arlo mugatuagoa fokuratzeko.

² Etnia edo arrazagatiko diskriminazioa desagerrarazteko aholkua.

Hala, Eraberean Sareak diskriminazio-egoerak egon daitezkeela identifikatzen dituen arlo desberdinen artean, lehenik arlo publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa egiten du. Bietan arlo hauek ageri dira (horiek dira Sarearen berezko aplikazio informatikoan jasota dauden kasuen erregistroaren inprimakian ageri direnak):

- Enplegua
- Hezkuntza
- Osasuna
- Etxebizitza
- Kirola
- Justiziarako sarbidea
- Herritarren segurtasuna (segurtasun-indarrak eta -gorputzak)
- Kultura
- Gizarte-zerbitzuak
- Komunikazioa eta Internet (komunikabideak eta sare sozialak)
- Beste batzuk:
 - Saltokiak eta bankuak
 - Aisialdia (kafetegiak, diskotekak...)
 - Kaleak, parkeak eta bide publikoko beste eremu batzuk
 - Familia-harremanen arlo pribatua
 - Bizilagunen arteko erlazioak

Arloez gain, diskriminazioa fokuratzen laguntzen duen beste alderdietako bat da gerta daitezken **diskriminazio motei** erreparatzea.

Motei dagokienez, Europar Batasuneko Kontseiluaren 2022ko ekainaren 29ko 2000/43/CE Zuzentarauak (etnia edo arraza edozein dela ere pertsoneri tratu-berdintasunerako printzipioa ezartzeari buruzkoa) oinarritzko bi diskriminazio mota ezartzen ditu, zuzenekoa eta zeharkakoa, eta jazarpen diskriminatzailea eta diskriminatzeko agindua ere eransten ditu. **Zuzeneko** diskriminazioa gertatzen da etnia, erlijioa, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioagatik egoera berdina edo alderagarria den kasuetan pertsona bat modu okerragoan tratatzen dutenean. **Zeharkako** diskriminazioa gertatzen da ustez

neutroa den xedapen, irizpide edo jarduketaren batek desabantaila zehatz bat sortzen duenean arraza edo etniagatik, erlijio edo sinesmengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu-orientazioagatik. Antzeko terminoak erabiltzen ditu 2000ko azaroaren 27ko 2000/78/CE Zuzentarauak, enpleguan eta lanean tratu-berdintasunerako marko orokorra ezartzeari buruzkoak.

Bi zuzentarau garrantzitsu horiez gain, egun legezko tresna oso garrantzitsua dugu diskriminazio eta definizio mota desberdinak jasotzen dituenen. **Uztailaren 12ko 15/2022 Legea, tratu berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzkoa**, hain zuzen ere. Huts egin zuten hainbat saiakeraren ondoren, azkenean Europako zuzentarauetara egokitutako araudia dugu, eta aukera garrantzitsuak eskaintzen ditu Eraberean Sarean egiten diren salaketak jasotzeko.

Lege horrek egiten duen sailkapenarekin jarraituz, hauek dira diskriminazio motak:

- 1. Zuzeneko eta zeharkako diskriminazioa.** Zuzentarauetan jasotako antzeko terminoetan dago definituta.
- 2. Diskriminazioa loturagatik eta diskriminazioa akatsagatik.** Loturagatiko diskriminazioa dago pertsona bat diskriminatutako taldearekin lotzen denean, talde horretako parte ez izan arren. Hori izango litzateke kasua, adibidez, laguna homosexuala izateagatik norbait bat diskriminatuko balute. Akatsagatiko diskriminazioa gertatzen da diskriminatutako pertsonaren inguruko uste okerrek eragiten dutenean. Esaterako: gay zela uste zutelako diskriminatua izatea.
- 3. Diskriminazio anitza eta interseksionala.** Diskriminazio anitza gertatzen da pertsona bat aldi berean edo jarraian lege honetan aurreikusitako bi arrazoi edo gehiagorengatik diskriminatzen badute. Diskriminazio interseksionala gertatzen da lege honetan aurreikusitako hainbat arrazoik eragiten badute eta diskriminazio mota zehatz bat sortzen bada.
- 4. Jazarpen diskriminatzailea.** Jazarpena da diskriminazio-arrazoiren bategatik egiten den jokabide oro, pertsona edo talde baten duintasunari eraso egiteko xedearekin eta ingurune beldurtzaile, aurkako, iraingarri, umiliagarri edo erasotzailea

sortzeko. Lege berrian jasotzen den diskriminazio mota honekin, **zigorgarria ez den gorroto-delitua** administrazioaren bidetik zigortzeko aukera zabaltzen da.

5. **Diskriminatzeko indukzioa, agindua edo jarraibidea.** Indukzioak zehatza, zuzena eta eraginkorra izan behar du beste pertsonarengan jarduketa diskriminatzailea eragiteko.
6. **Errepresaliak.** Kasu bat izango litzateke pertsona bat lanetik kaleratzea diskriminazioagatik enpresa salatu duen langile baten aldeko testigantza emateagatik.
7. **Ekintza positiborako neurriak.** Ekintza positiboak dira dimentsio kolektiboan eta sozialean gertatzen den edozein diskriminazio edo desabantaila prebenitu, ezabatu eta, hala badagokio, konpentsatzeko tratuan egiten diren desberdintasunak. Neurri horiek aplikagarriak izango dira justifikatzen dituzten diskriminazio- edo desabantaila-egoerak baldin badaude, eta arrazionalak eta proportzionalak izan beharko dute garatzeko dauden bitartekoekin eta dituzten xedeekin.
8. **Eskola-segregazioa.** Segregazioa da ikaslea arrazoi sozio-ekonomikoengatik edo legean ageri diren segregazio-arrazoiengatik (arrazoia edo etnia, sexua, erlijioa, ustea edo iritzia, adina, etab.) bereizteko eragina duen jarduketa, ekintza edo omisio oro, inolako justifikazio objektibo eta arrazoizkorik gabe.

15/2022 Lege berrian jasota dauden zortzi diskriminazio mota horiek eta goian aipatutako arloak kontuan hartzea beharrezkoa da diskriminazioari argazkia ateratzeko orduan **fokuratzeko**.

Laukiratu eta fokuratzeko ariketaren ondorio dira datorren atalean labor zirraborratuko ditugun argazki panoramikoak (iturri bibliografikoak eta dokumentalak ere txertatuko ditugu, EAEko diskriminazioaren azterketa zabal horretan gehiago sakondu nahi izanez gero zuzenean kontsultatzeko).

5. EAEKO DISKRIMINAZIOAREN PANORAMIKAK ETA PLANO OROKORRAK

Diskriminazioa oro har laukiratu eta fokuratzeko tresnak dagoeneko deskribatu ditugunez, atal honetan, EAEko diskriminazioaren argazki zehatza ateratzean jarriko dugu arreta.

Ikuspegi Behatokiak *Euskadiko diskriminazioaren inguruko pertzepzio eta jarrerai buruzko inkestaren azterketa* lanean eskaintzen duen argazki panoramikitik hasiko gara. Azterketa hori 1.200 inkestetatik abiatuta egin zuten, eta EAEn dagoen diskriminazioaren argazki orokor bat eskaintzen du.

Zehazki, galdetu denean **egoera diskriminatzaileen lekuko** izan ote diren **(ikusi edo entzun dituzten)** haien inguruan, LGTBI kolektiboen, etorkinen edo ijitoen aurkako diskriminazioak kontuan hartuta, besteak beste, hauek izan dira emaitzak:

Zeharkako diskriminazioa: esparruak eta arrazoiak (%)

Guztizkoaren %	Sexua	Jatorria	Nazionalitatea	LGBTB	Adina	Erijioja	Pobrezia	Desgaitasuna	Obesitatea	Auzoa	Haurdun
Lana	3,9	4	2,4	0,8	2,4	0,7	0,7	0,6	0,9	0,1	0,4
Hezkuntza	0,7	0,8	0,5	0,9	0,2	0,2	0,2	0,6	0,2	0,1	
Zerbitzu publikoak jasotzea	0,1	0,5	0,5	0	0,2	0,1	0,2	0,1			
Administrazio publikoko arreta	0,2	0,6	0,5	0,2	0,1	0,5	0,1	0,1			
Poliziaren trataera	0,1	0,2	0,2		0,1	0,1					
Politikan eta/edo gizartean parte hartzea	0,1	0,2	0,2		0,1						
Garraio publikoa	0,1	0,3	0,4			0,1		0,2	0,2		
Dendetan sartzea		0,2	0,2				0,1	0,1	0,1		
Aisialdirako tokietan sartzea (tabernak, jatet. edo disko.)	0,5	0,2	0,1	0,1		0,1					
Familia barruan	0,2			0,2	0,1		0,2				
Lagunen eta ezagunen artean	0,2	0,3	0,3	0,1	0,1	0,2		0,1	0,2	0,1	
Auzoan edo komunitatean	0,2	0,4	0,4	0,1	0,2	0,2	0,1				
Kalean	2,3	6,4	2,9	1,4	0,8	3,3	1,4	1,2	2,1	0,6	
Beste toki edo esparru batean (zehaztu)	0,2	0,2	0,3	0,1	0,1	0,1		0,1	0,1		
Ed/Ee	93,8	89,3	94,1	97,2	96,1	95,9	97,6	97,9	97,4	99,3	99,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
K	1.200	1.200	1.200	1.200	1.200	1.200	1.200	1.200	1.200	1.200	1.200

Iturria: 44. G. "Zein esparru edo egoeratan ikusi edo entzun duzu zure ingurukoren batek diskriminazioa jasan duela honako arrazoi hauetako bat dela-eta?".

Bigarren argazkian, Ikuspegi Behatokiak lehen pertsonan jasotzen ditu erantzunak. Etorkina, LGTBI kolektibokoa edo ijitoa izateagatik (beste kategoria batzuen artean) **zer egoeratan sentitu diren diskriminatuta** galdetzean, erantzun hauek eman dituzte:

Zuzeneko diskriminazioa: esparruak eta arrazoiak (%)

Guztizkoaren %	Sexua	Jatorria	Nazionalitatea	LGTB	Adina	Erlijioa	Pobrezia	Desgaitasuna	Obesitatea	Auzoa	Haurdun
Lana	24,3	15,5	18,1	18,4	40,0	5,8	10,0	24,2	10,9	12,4	
Hezkuntza	6,1	6,3	3,3	7,6	2,0		3,8	19,0			
Zerbitzu publikoak jasotzea	1,2		2,1		2,0		11,5	10,0		12,6	
Administrazio publikoko arreta	0,7	4,4	3,5		1,9		9,3	12,3			
Poliziaren trataera	1,2		1,9		2,0		3,8	6,4			
Politikan eta/edo gizartean parte hartzea	0,8		1,3								
Garraio publikoa											
Dendetan sartzea		0,7									
Aisialdirako tokietan sartzea (tabernak, jatet. edo disko.)	1,9			4,6	2,6						
Familia barruan	3,4		1,4		3,9		3,8	12,4		12,6	
Lagunen eta ezagunen artean	0,7	1,9				9,1	2,2				
Auzoan edo komunitatean		2,2	1,9								
Kalean	9,5	10,8	9,9	12,4	3,2	23,2	6,0	6,7	9,0	20,6	
Beste toki edo esparrubatean (zehaztu)	1,9	6,6	4,7								
Ed/Ee	61,8	55,8	58,2	59,3	53,5	67,7	66,9	53,2	83,2	67,0	100
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
K	127	45	73	19	80	17	41	25	33	13	18

Iturria: 37. G. "Zein esparru edo egoeratan sentitu zara diskriminatuta, honako hauek direla-eta?"

Ikuspegi Behatokiak ateratako ondorio esanguratsuetako batzuk hauek dira

- Euskadiko biztanleria orokorrak onartzen du diskriminazioa dagoela.
- Alokairuzko etxebizitzena da diskriminazio gehien dagoen arloa (inkestaturako pertsonen % 82,2k berretsi du). Diskriminazio gehien jasaten duten pertsonak baliabide ekonomiko asko ez dituztenak direla hautematen da, langabezia daudena eta atzerriko nazionalitatea dutenak.
- Lana lortzeko orduan, inkestaturako herritarren % 78,1ek uste du etorkinek, ijitoek eta emakumeek diskriminazioa jasaten dutela.
- Lehen pertsonan bizitako eta adierazitako diskriminazioari buruz galdetzean: “Noizbait diskriminatua sentitu zara?” Euskadiko herritarren % 24 diskriminatuta sentitu da behin edo hainbat aldiz bere bizitzan zehar (% 61,4 emakumezkoak dira).
- Diskriminaziorik ote dagoen galderari baietz erantzun dioten pertsonak hiru arlo zehatz aipatu dituzte: lana, espazio publikoa eta hezkuntza. Eta diskriminazioaren arrazoiak dira sexu/generoa, adina edo dibertsitate funtzionala, jatorria, erlijioa edo LGTB kolektiboaren parte izatea.


Emaitza horiek ikusita etor dakiguken galdera da ea Euskadin estatuko edo Europako **beste leku batzuetan baino gehiago** diskriminatzen den. Bada, galdera horri erantzuteko, Ikuspegi Behatokiak 2021eko uztaillean dokumentu bat argitaratu zuen: *Diskriminazioa eta dibertsitatea EAEn: ikuspegiak, arloak eta kolektiboak. Dokumentu horretan hain zuzen ere jasota dago “Diskriminazioaren eta dibertsitatearen pertzepzioaren azterketa konparatiboa EAEn, Nafarroan, estatuan eta European” izeneko lana. Hona hemen ikerketa horren ondorioetako batzuk:*

- Giza harremani eta bizikidetzari dagokienez, euskal gizartea bizikidetzaren alde agertu da ia kolektibo guztiakin (etorkinak, LGTBI kolektibokoak, ijitoak, eta desgaitasunen bat duten pertsonak). Ez da hala agertu, ordea, beste erlijio batzuetako pertsonekin; izan ere, kasu horretan euskal gizarteak onarpen maila apalagoa erakusten du estatuko edo EBko beste tokiekin alderatuta.

- Diskriminazioaz ari garela, euskal gizarteak, oro har, diskriminazioaren pertzepzio baxua du estatuarekin edo EBko beste herrialdeekin alderatuta. Gauza bera esan genezake, bizitako diskriminazioari dagokionez; izan ere, Euskadik diskriminazioa pairatu izana adierazi duten pertsonen tasarik apalenetakoa du EB osotik.

Laburbilduz, euskal gizarteak diskriminazioaren presentzia maila baxua du ezaugarri, bai hautemandako diskriminazioarena baita bizitako diskriminazioarena ere, eta, aldi berean, desberdintasunak onartzeko maila altua du.

Argazki hau osatzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen Katedrak egindako Gorroto Delituen Txostena erabiliko dugu. Txostenaren arabera, 2022. urtean, Euskadin 438 gorroto-gertakari erregistratu ziren, delitu izan zitezkeenak. Horietatik, 435 (%99,31) gorroto-delituak izan ziren eta 3 (%0,68) arau-hauste administratiboak. Kolektiboen arabera honakoa da:



Ikus dezagun grafikoa delitua gertatu den lurralde historikoaren arabera:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BESTE PROBINTZIAK	ATZERRIA	EZEZAGUNA	GUZTIRA
ANTISEMITISMOA	-	-	-	-	-	-	0
ADINA	-	-	1	-	-	-	1
SINISMEN / PRAKTIKA ERLOJIOSOAK	1	1	1	-	-	-	3
APOROFOBIA	1	-	-	-	-	-	1
GENEROA	8	47	12	1	-	-	68
IDEOLOGIA/ ORIENTAZIO POLITIKOA	3	23	5	-	1	2	34
DIBERTSITATE FUNTZIONALA	3	3	3	-	-	-	9
SEXU-ORIENTAZIO/ IDENTITATEA	8	61	25	-	-	-	96
ARRAZISMOA/ XENOFOBIA	32	113	77	-	1	2	231
BESTEAK	-	1	-	-	-	-	1
GUZTIRA	56	244	128	1	2	4	435

Kontuan izan atal honen hasieran azaldu dugula diskriminazioaren eta delitu-gorrotoen arteko desberdintasuna. Gorroto-delituak dira, zalantzarik gabe, diskriminazioaren irudirik ilunena: iraina, eraso fisikoa edo hitzezkoa, mehatxua.

Argazkiak ateratzeko orduan dauden aldeei dagokienez, gorroto-delituen datuek duten fidagarritasuna ez dute diskriminazioagatik jarritako salaketek. Azalpena erraza da. Gorroto-delituez ari garenean, Ertzaintzak jasotzen dituen atestatuez ari gara. Atestatu horiek Barne Ministeriora bidaltzen dituzte eta bertan estatuko gorroto-delituen jarraipen-txostena egiten dute. Diskriminazio-salaketek, ordea, ez dute estatistika ofizialik. Eraberean Sarea bezalako erakundeek datu fidagarriak eta beste erakunde batzuen erregistro-irizpideekin bateragarriak eskaintzeko erronka dute, diskriminazioaren argazki osatuagoa izateko. Eta horrez guztiaz gain, ez da ahaztu behar salaketak ez direla nahikoa irudi osoa deskribatzeko; izan ere, diskriminazioa jasaten duten pertsonen % 20k soilik salatzen du. Datu hori antzekoa da gorroto-delituen kasuan ere.

Nolanahi ere, nahikoa ez izan arren, funtsezkoa da diskriminazioa jasan eta salatzen duten % 20 horri argazkia ateratzea, zehazki Eraberean Sarean salatzen dutenei. Diskriminazioa ezabatzeko politikak egiteko garaian garrantzitsua da, eta horregatik, hurrengo atala argazkia kuantitatiboki ateratzeari eskainiko diogu. Hirugarrena, berriz, lehen planoko argazkiei.

2. **ERABEREAN** TXOSTENA **2021**


2. ERABEREAN SAREAK 2021 EAN ARTATUTAKO KASUEN INGURUKO TXOSTEN KUANTITATIBOA. (TAULAK ETA GRAFIKOAK)

AURKEZPENA

Artatutako kasuak, guztira

2021ean zehar, Eraberean Sareak 61 salaketa jaso zituen guztira diskriminazioagatik eta tratu-desberdintasunagatik. Horietatik erdia inguru Bizkaian izan ziren (% 46), heren bat berriz Araban (% 31) eta hamarretik bi gutxi gorabehera Gipuzkoan (% 23).


1. grafikoa. Lurralde Historikoaren arabera artatutako kasuak (2021)



Iturria: Geuk egina.

Sareak kasuaren berri izan duen bidea

2. grafikoa. Eraberean Sareak kasuaren berri izan duen bidea, % (2021)



Iturria: Geuk egina.


2021ean zehar jasotako datuek erakusten dute Sareko erakundeak izan direla eskaintzen duen zerbitzurako sarbide nagusia. Hala, 10 kasutik 4 bide horretatik heldu da, pertsona ezagun baten bidez jaso diren kasuen bikoitza (% 22).

Nabarmentzekoa da Sarearen parte ez diren beste erakunde batzuek emandako informazioa (% 19,4), Sareak komunitatean duen garrantzia nabarmentzen baitu, baita Sareko ekintzek kanpoko beste erakunde batzuentzat duten irismena eta hedapena ere.

Beste bideak ez dira hain ohikoak, esaterako, beste biktima batzuen aurretiazko esperientzia eta ezagutza (% 5,6), Sarearen kanpoko webguneak (% 5,6) eta zerbitzu edo administrazio publikoren batekin harremana izatea (% 2,8).

Kasuaren berri izateko bidea

3. grafikoa. Kasuaren berri izateko bidea, % (2021).



Iturria: Geuk egina.

Jasotako kasuen berri izateko bideak zein izan diren aztertuz gero, ikus dezakegu gehienak (% 39,1) zentrora etorri diren antena eskudunen bidez heldu zaizkigula Sarera (hau da, immigrazioan, LGTBI kolektiboan eta ijito-herrian eskumena dutenen bidez).

Atzetik, telefonoa izan da gehien erabilitako bidea, iazko kasuen % 34,8an. Ez da hain ohikoa prentsan eta komunikabide digitaletan albisteak topatzea, presentzia txikiagoa dutelako identifikatzeko zailtasunarengatik, baita argitaratzeko eta editatzeko malgutasunarengatik ere.

Azkenik, e-maila izan da gutxien erabili duten bidea (kasuen % 6,5), eta horrek agerian uzten du pandemia bizi izan arren eta digitalerako joera hartu arren, jazoera

diskriminatzaileen kasuan beharrezkoa dela pertsonen arteko lotura, Eraberean Sareak oraindik ere baduena.


INFORMAZIO SOZIODEMOGRAFIKOA

Artatutako pertsonen profila

Parekidetasunaren aldetik, 2021eko datuek erakusten dute diskriminatutako pertsonaren sexuaren arabera ekarpena parekidea dela. Izan ere, pertsonen sexua identifikatu zen 54 kasutatik 27 emakumezkoak izan ziren, eta 27, gizonezkoak.

Sexuari erreferentzia egiten ez dioten kasuak diskriminazio kolektiboarenak izan ohi dira (pertsona talde edo kolektibo osoaren aurkakoak) eta, oro har, iragarkietan, komunikazioetan eta Interneten argitaratutako elementuetan gertatu ohi dira.

4. grafikoa. Eraberean Sareak artatutako pertsonen sexua (2021)




Iturria: Geuk egina.

Arreta diskriminatu duten pertsonarengan jarritz gero, ikus dezakegu kasu gehienak adin-tarte gazteenetan izaten direla. Izan ere, 2021ean identifikatu ziren kasuen % 5ean protagonistak 30 urtetik beherakoak izan ziren.

Horrek esan nahi du Sareak artatutako pertsonen profila gaztea dela. Tarte 40 urtera handituz gero, ikusiko dugu ehuneko kasu guztien % 77raino igotzen dela.

Banaketa iaz bildutako datuen antzekoa da, orduan ere adin talde nagusienak baitziren jasotako kasuetan ordezkari gutxien zutenak. Horrek adieraz lezake gazteenek ikuspegia "trebatuago" dutela tratu txarren egoerak hautematerako orduan.

5. grafikoa. Eraberean Sareak artatutako pertsonen adina (2021).



Iturria: Geuk egina.

Sexua * adina aldagaien gurutzaketari erreparatuz gero, ikus dezakegu nola salaketa jarri zuten edo Sareak artatu zituen gizonetzko gehienek 18 eta 30 urte artean zituztela (% 60,9). Emakumeen kasuan, aldiz, gehienak kategoria bat gorago daude (% 45,8k 31 eta 40 urte artean ditu).

1. taula. Eraberean Sareak artatutako pertsonen adina/sexuaren gurutzaketa (2021)

	0-17	18-30	31-40	41-50	51-60	61 eta gehiago	Guztira
Gizona	2 (%8,7)	14 (%60,9)	2 (%8,7)	5 (%21,7)	0	0	23 (%100)
Emakumea	2 (%8,3)	5 (%20,8)	11 (%45,8)	4 (%16,7)	0	2 (%8,3)	24 (%100)
Guztira	4 (%8,51)	19 (%40,42)	13 (%27,65)	9 (%19,14)	0	2 (%4,28)	47 (%100)

Iturria: Geuk egina

Diskriminazioa gazteen artean. Begirada etorkizunean.


2021ean zehar, Eraberean Sareak biztanleria gazteena identifikatu zuen diskurtso eta jarduketa diskriminatzaileen helburu nagusi gisa. Alde horretatik, ikusi dugu hezkuntzaren arloa dela belaunaldi berriek egoera diskriminatzaileak jasaten dituzten agertoki nagusietako bat.

Maila praktikoan, 2021ean bi kasu nabarmentzen dira: ikastetxe bateko horman pintaketa transfoboak agertu izana eta irakasleek jarrera diskriminatzaileak hauteman izana bigarren hezkuntzan.

Artatutako kasuak begiradaren arabera (Immigrazioa, Ijito-herria, LGTBI)

Jasotako kasu gehienek dituzten ikuspegiei erreparatuz gero, ikus daiteke nagusi direla LGTBI kolektiboari (% 48) edo atzerritarrei (% 41) eragiten dietenak. Alde nabarmena dago ijito-herriaren aurkako diskriminazioarekin alderatuta (% 11).


6. grafikoa. Artatutako kasuak begiradaren arabera (2021)



Iturria: Geuk egina

Diskriminazio-zantzuak

7. grafikoa. Diskriminazio-zantzuak 2021ean artatutako kasuetan.




Iturria: Geuk egina

2021ean erregistratutako 61 kasutatik 51k (% 89) diskriminazio-zantzuak zituzten eta 7 kasutan soilik (% 11) sor litezke zalantzak.

Horrek esan nahi du diskriminazioaren adierazpenak ezkutukoak baino agerikoak direla. Ondorioz, halako egoerak edo adierazpenak prebenitzeko sentsibilizazio eta lan proaktibo gehiago egin behar da, adierazpenik gorenera hel ez daitezten (orokorrean gorroto-adierazpenak izan ohi dira, edo gorroto-delituak, okerrenean).

Diskriminazio-zantzuak, begiradaren arabera

8. grafikoa. Diskriminazio-zantzuak begiradaren arabera (2021)




Iturria: Geuk egina

Diskriminazio-zantzuei begiradaren arabera erreparatuz gero, ikus dezakegu Sarearen lanean dauden hiru begiradetan kasu gehienek zantzuak dituztela (guztiek ijito-herriaren kasuan, % 92k atzerriko herritarren kasuan eta % 82,8k LGTBI kolektiboko pertsonen kasuan).

Horrek agerian utz dezake pertsonen bizitzari modu nabarmenean eragiten dioten errealitateak daudela, balio-judizioetatik edo pertzepzio subjektiboetatik urrun. Horren aurrean, sarean egiten den lana ezinbestekoa da -Tratu Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Eraberean Sareak egiten duena, esaterako-.

Kasuaren irekiera

9. grafikoa. Kasuaren irekiera, % (2021)



Iturria: Geuk egina


Aurreko urtean bezala, kasu gehienak kaltetutako pertsonak hala eskatuta zabaldu ziren (% 60,7). Pertsona horiei laguntza-zerbitzua eta aholkularitza juridikoa eskaini zaie (dagokien kasuetan).

2020arekin alderatuta, desberdintasunik agerikoenak Sarearen ekimenez zabaldu diren kasuetan daude (% 26,2), bikoiztu egin baitira. Horrek esan nahi du Sarea dinamikoa eta azkarra dela diskriminazio-kasuak hautemateko orduan, eta diskriminazio-egoerei

aurre egiteko tresna gisa identifikatzen dela. 2021ean, hirugarren pertsonak izan dira kasuak zabaltzeko eraginik txikiena izan dutenak (% 13,1).

Kasuaren irekiera, begiradaren arabera

10. grafikoa. Kasuaren irekiera begiradaren arabera (2021)



Iturria: Geuk egina

Kasua irekitzeko arrazoi bakoitzean (Sarearen ekimenez, kaltetutako pertsonak berak eskatuta edo hirugarren batek) nagusitzen den begirada aztertuz gero hau ikusi dugu:


- Sarearen kasuan, irekitako kasu gehienak LGTBI kolektiboko pertsonen aurkako diskriminazio-kasuak izan dira (10 kasutik 3). Era berean, etorkinekin lotuta daudenak % 25 dira.
- Sarera kasu bat aurkeztu eta irekitzeko joan direnen artean gehienak etorkinak izan dira. Hala, kasuen erdia baino gehiago (% 51,4) talde horren barruan daude.

Jarraian, LGTBI kolektibokoak daude (% 43,2) eta presentzia txikia dute ijito-herriarekin lotura dutenek (% 5,4).

- Azkenik, salaketa sustatzen duten hirugarren pertsonen presentzia (lekukoak) presente dago, batez ere ijito-herriaren kasuetan, diskriminazioa normalizatzeko zantzuak adierazi baititu. Normalizazio horrek diskriminazioa gauza "natural" gisa bizitzea dakar, eta **horrek salaketa jartzea zailtzen du..**

Artatutako pertsonen eremu geografikoa

11. grafikoa. Artatutako pertsonen eremu geografikoa, % (2021)




Iturria: Geuk egina

Aurreko urteetan gertatu bezala, jasotako diskriminazio kasu gehienek estatu Espainiarreko pertsoneri eragiten diete (% 65,6), gero, Latinoamerikatik etorritakoei (% 16,4) eta Magrebtarrei (% 8,2).

Ez dute hain presentzia nabarmena Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozen pertsonen (% 6,6) eta Sahara mendebaldekoek (% 3,3).

Artatutako pertsonen eremu geografikoa, begiradaren arabera

12. grafikoa. Artatutako pertsonen eremu geografikoa begiradaren arabera, % (2021)



Iturria: Geuk egina

2. taula. Artatutako pertsonen eremu geografikoa begiradaren arabera (2021)

	Immigrazioa	LGTBI	Ijito-herria	Guztira
Espainia	4 (% 16)	27 (% 93,1)	7 (% 100)	38 (% 62,3)
Latinoamerika	10 (% 40)	2 (% 6,9)	0	12 (% 19,7)
Asia	0	0	0	0
Afrika beltza	4 (% 16)	0	0	4 (% 6,6)
Magreb	7 (% 28)	0	0	7 (% 11,5)
Guztira	25 (% 100)	29 (% 100)	7 (% 100)	61 (% 100)

Iturria: Geuk egina.

Jatorriaren arabera artatutako kasuak*3. taula. Jatorriaren arabera artatutako kasuak (2021)*

Jatorrizko herrialdea			
<i>Espainia</i>	<i>38</i>	<i>Mendebaldeko Sahara</i>	<i>2</i>
<i>Kolonia</i>	<i>6</i>	<i>Aljeria</i>	<i>1</i>
<i>Maroko</i>	<i>4</i>	<i>Bolivia</i>	<i>1</i>
<i>Brasil</i>	<i>2</i>	<i>Nigeria</i>	<i>1</i>
<i>Ginea</i>	<i>2</i>	<i>Senegal</i>	<i>1</i>
<i>Nikaragua</i>	<i>2</i>	<i>Venezuela</i>	<i>1</i>
Guztira			61

Iturria: Geuk egina.


2021ean Eraberean Sarera joan diren pertsonen jatorri-herrialdeari erreparatuz gero, ikus dezakegu –2020ko txostenean bezala– gehienak Espainiar estatukoak direla (38), atzetik daude tarte handira kolonbiarrak (6) edo marokoarrak (4). Gainerako kategorien presentzia minimoa da.

Hala, Brasil, Ginea, Nikaragua edo Saharatik etorritakoak dira bina kasu, eta Aljeria, Bolivia, Nigeria, Senegal edo Venezuelakoak kasu bana, hurrenez hurren.

BIKTIMEN PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA, BEGIRADAREN ARABERA

Immigrazioa

13. grafikoa. Biktimen profil soziodemografikoa, % (Immigrazioa, 2021)



Iturria: Geuk egina

4. taula. Biktimen profil soziodemografikoa, % (Immigrazioa, 2021)

Profila	%	Profila	%
Gizona <18	5,0	Emakumea <18	0,0
Gizona 18-30	25,0	Emakumea 18-30	15,0
Gizona 31-40	10,0	Emakumea 31-40	20,0
Gizona 41-50	15,0	Emakumea 41-50	5,0
Gizona 51-60	0,0	Emakumea 51-60	0,0
Gizona 60+	0,0	Emakumea 60+	5,0
Total			100

Iturria: Geuk egina


2021ean Sareak jaso zituen datuei begirata, ondoriozta dezakegu immigrazioaren arloan nagusitzen den profila 18-30 urteko gizonena (kasuen % 25) eta 31-40 urte arteko emakumeena dela (% 20).

Presentzia apur bat txikiagoa dute 18 eta 30 urte bitarteko emakumeek edo 41-50 urte arteko gizonak (kasuen % 15). Atzetik daude 31 eta 40 urte arteko gizonak.

Azken finean, nabarmendu behar da Sarean diskriminazioa jasan dutela salatu duten atzerriko pertsonen profila gaztea dela gehien bat (40 urtetik behera) eta bi sexuek presentzia berbera dutela.

Hori arrazoitzeko norberaren eskubideak zein diren jakiteko prestatuta dauden begiradei erreparatu behar diegu, baita egoera horiek salatzeko duten borondateari ere (ez du zertan beti bide judizialeak izan). Halaber, kontuan izan behar da atzerriko herritarren adinaren balioak tokikoenak baino baxuagoak izan ohi direla, "lan egiteko adinean" dauden herritarrak izan ohi baitira.

14. grafikoa. Diskriminazio-kasuak kaltetutako pertsonen kopuruaren arabera, (Immigrazioa, 2021)



Iturria: Geuk egina

Etorkinen begiradaren aldetik aztertutako kasuen eraginari erreparatuz gero, ikus dezakegu kasu gehienetan pertsona bat zela kaltetua (% 68), eta kasuen heren batean gutxi gorabehera kolektiboari eragin ziola (% 27).

Garrantzitsua da nabarmentzea atzerriko pertsonen begiradaren kasuan, diskriminazioa modu partikularrean bizitako zerbaiten modura ikusten dutela, baina kontuan izan behar da kasu batzuetan kolektibo osoaren eskubideen aurkako erasoak izan dela. Horren adibide da pertsonen duintasunerako eskubidea errespetatzen ez duten diskurtsoak edo estereotipoak sustatzea sare sozialen eta komunikabideen bitartez.


Komunikabideak, diskriminazio-diskurtsoen sustatzaileak

Komunikatzeko tresnak irismen sozial handia duten hedapen-tresnak dira. Hala, horietan jasotzen diren eta erreproduzitzen dituzten diskurtsoek zuzenean eragiten dute pertsonen fenomeno batzuen inguruan dituzten pertzepzioetan, bai eta horien aurrean dituzten jarreretan ere. Kasu batzuetan, hainbat artikulu edo materialek kolektiboak seinatu eta estigmatizatzen dituzte, eta desberdintasuna sortzen duten begiradak eragiten dituzten arazo sozialekin lotzen dituzte.

Hori da Covida zabaldu zenean ijitoekin gertatu zena edo atzerritarrekin gertatzen dena, lanpostuak edo laguntza sozialak bereganatzen dituztela diotenean. Gauza bera pasatzen da LGTBI kolektiboarekin, estereotipoen eta aurreiritzien sare zabala eta trinkoa baitago haien inguruan. Baina eragin guztiak ez dira ezagunak eta ez daude neurtuta: aurten ikusi da egunkari bateko kontrazalean dauden komikietan ere zantzu arrazistak edo xenofoboak egon daitezkeela. Izan ere, arrazializatutako pertsonak primare itxurarekin karikaturizatzea aspalditik pasa izan zaigu oharkabean.

Ijito-herria

15. grafikoa. Biktimen profil soziodemografikoa, (Ijito-herria, 2021)




Iturria: Geuk egina

2021eko txostenean, garrantzitsua da azalpenak ematea gertakari edo egoera diskriminatzaileak salatzeke asmotan Sarera joan diren ijitoen ezaugarri soziodemografikoen grafikoari buruz.

Jaso diren kasuen % 57an profila 31 eta 40 urteko emakumeena izan da. Gainerako kasuetan (% 43), ez dute sexua identifikatu jazoera ijito-herriaren aurkakoa izan baita, modu kolektiboan.

16. grafikoa. Diskriminazio-kasuak kaltetutako pertsonen kopuruaren arabera, % (Ijito-herria,



Iturria: Geuk egina


Kasuistika hori azaltzeko kontuan izan behar dugu jasotako kasuen % 57,1 ijitoen aurkako argitalpen edo iragarki diskriminatzaileei buruzkoak direla. Hala -eta aurreko txostenetan jasotzen den moduan- ijito-herria da diskriminazio sakonagoa eta agerikoagoa jasaten duen kolektiboetako bat.

Horri buruz dauden ikerketen artean "Diskriminazioa eta dibertsitatea EAEn: ikuspegiak, arloak eta kolektiboak"¹ Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako txostena nabarmendu behar da. Bertan ijitoen zaugarritasun-egoera nabarmendu zuten, bizikidetzan mesfidantza gehien sortzen duen eta sozialki eta kulturalki distantzia gehien duen kolektiboa baita.

¹ Iturria: https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/discriminacion_diversidad_CAE_casOK.pdf

LGTBI kolektiboa

17. grafikoa. Biktimen profil soziodemografikoa, (LGTBI, 2021)



Iturria: Geuk egina

5. taula. Biktimen profil soziodemografikoa, % (LGTBI, 2021)


Gizona	%	Emakumea	%
Gizona <18	4,2	Emakumea <18	12,5
Gizona 18-30	37,5	Emakumea 18-30	8,3
Gizona 31-40	0	Emakumea 31-40	12,5
Gizona 41-50	8,3	Emakumea 41-50	12,5
Gizona 51-60	0,0	Emakumea 51-60	0
Gizona 60+	0,0	Emakumea 60+	4,2
Guztira			100

Iturria: Geuk egina

Lesbiana, gay, transexual eta bisexualen kasuan, ikus daiteke nagusitzen den profila gizon eta emakume gazteena dela. Lehenengo kasuan –hau da, gizonen kasuan– Profila 18 eta 30 urte bitarteko pertsonena da. Bigarren kasuan, aldiz, –emakumeen kasuan– profila adingabeena da. Bi profil horiei 31 eta 40 urte bitarteko emakumeena eta 41 eta 50 urte bitartekoena gehitzen badiegu, kasuen % 75 hartzen duela ikusiko dugu.

Hori horrela, nabarmendu dezakegu orientazioagatik eta sexu-praktikengatik diskriminatutako pertsonen profila pertsona gazte batena dela, batez ere, emakume batena. .

18. grafiko. Diskriminazio-kasuak kaltetutako pertsonen kopuruaren arabera, (LGTBI, 2021)



Iturria: Geuk egina

Ikuspegi horren barruan dauden kasuen eta elementu diskriminatzaileen eraginari erreparatuz, nabarmendu behar da gehienak (% 69) norbanakoen askatasunaren aurkako erasotzat hartu zituztela, aldiz, 5 kasutatik 1 (% 21) LGTBI pertsonen kolektiboaren aurkako erasotzat hartu zuten. Urriak dira hainbat pertsonen aurkako erasotzat hartu dituzten kasuak, kasu guztien % 10.


DISKRIMINAZIOAREN ARLOAK

Diskriminazio mota

Pertsonek Sarean salatu duten diskriminazio motari erreparatuz gero, ikus dezakegu gehienek (% 84) zuzeneko diskriminazioaren biktimak izan direla nabarmendu dutela.

Kontrako kasua dira beste % 16, zeharkako diskriminazioaren kasuak baitira.

19. grafikoa. Diskriminazio mota (2021)




Iturria: Geuk egina

Alde horretatik, garrantzitsua da zuzeneko diskriminazioaren eta zeharkakoaren desberdintasunak aipatzea beste behin ere: zuzeneko diskriminaziotzat hartzen da pertsona bati beste bati baino tratu okerragoa ematen bazaio egoera berdintsu

batean, haren etnia, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina, sexu-orientazio edo bestelako faktoreak direla eta. Kontrakoa da zeharkako diskriminazioa: ustez neutroak diren legezko edo kontratuzko xedapenek, hitzarmen indibidualek edo alde bakarreko erabakiek pertsona jakin batzuei desabantailak sortzen badizkie gainerakoekin alderatuta, arraza edo etnia, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa direla eta, betiere legezko helburua ez badute eta helburu hori lortzeko egokiak eta beharrezkoak ez badira (Eraberean, 2018).

Diskriminazioaren azpimotak

20. grafikoa. Diskriminazioaren azpimotak, % (2021).



Iturria: Geuk egina

Diskriminazioaren azpimotei buruzko atalean ikus dezakegu ia horien laurden bat "besteak" kategoriaren barruan daudela. Kategoria horren barruan daudenak banketxeen arloko diskriminazioak dira gehienbat.

Aurretik aipatu dugun moduan, aurtan kasu ugari izan dira banketxeetan; atzerritarrak diskriminatu egin dituzte jatorriagatik kontu korrontera sartzeko unean edo zabaltzean.

Kategoria horren barruan daude, halaber, etniarengatik-arrazarengatik edo sexu-identitateagatik eta orientaziogatik egindako diskriminazioak, baita dibertsitate funtzionalarengatik (normalean, motorra) egindako diskriminazioa ere.


Atzetik, ohikoena da pertsona edo kolektibo batzuei buruz dauden aurreiritzi eta estereotipoengatik diskriminatzea (% 33,9).

Ez da hain ohikoa akatsagatik diskriminazioa (% 11,9), hau da, diskriminatzaileak uste oker baten ondorioz egiten duen diskriminazioa. Gainera, kasuen % 10,2an, tratu diskriminatzailearen arrazoia izan da pertsona edo taldea beste talde edo pertsona jakin batzuekin lotzea.

Azkenik, bereizkeriazko jazarpena dugu (kasuen % 6,8). Pertsona edo talde baten duintasunaren aurka egiteko eta ingurune larderiatsu, etsai, umiliagarri edo iraingarri bat sortzeko helburuarekin egindako edozein jokabideri dagokio (Eraberean, 2018).

Datu frogagarriak

21. grafikoa. Datu frogagarriak (2021)



Iturria: Geuk egina


2021ean aztertutako kasu guztien artean, 4tik 3k (% 74) elementu frogarriak zituen. Kasu gehienetan, datu frogagarri horiek gertakariaren lekuak edo dokumentazioa dira (erreklamazio-orriak, salaketak...).

Halaber, Interneten argitaratutako materialak ere bildu ditugu; izan ere, nahiko erraz moldatu eta ezabatu daitekeen informazioa izateko modurik onena dela iruditu zaigu.

Aldiz, kasuen % 26k ez du datu frogagarririk izan, eta horrek zaildu egiten du gertakariak frogatzea, bai eta kasu batzuetan laguntza eskaintzea eta jarraipen juridikoa egitea ere.

Diskriminazioaren arloak

22. grafikoa. Diskriminazioaren arloak, % (2021)



Iturria: Geuk egina

Aurreko urteetan gertatu bezala, eremu pribatua da Sareak identifikatutako diskriminazio-kasuetan presenteen egon den agertokia. Hori izan da 2021ean jasotako

kasu guztien % 67,2. Hala, eremu pribatukoak dira 2021ean izandako kasuen heren bat inguru (% 32,8), baina eremu pribatuak dira gertakari diskriminatzaileak ohikoen diren eremua (enpresak, etxebizitza partikularrak, jabeen komunitateak, aisialdirako lokalak eta negoziak...).

Joera hau pandemia aurretik identifikatutakoaren antzekoa da, orduan ere eremu pribatua presentego baitzegoen analisisian (2019an eremu pribatuko balioak % 63,9koak izan ziren eta 2020an % 56ra jaitsi ziren).

6. eta 7. taulak. Diskriminazioa izan den arloak (2021)²

Arlo publikoa (%)	
<i>Bide publikoa</i>	42,1
<i>Komunikazioa eta internet</i>	15,8
<i>Osasuna</i>	15,8
<i>Hezkuntza</i>	10,5
<i>Enplegua</i>	10,5
<i>Etxebizitza</i>	5,3

Arlo pribatua (%)	
Etxebizitza	28,6
Banketxea	21,4
Aisialdia eta ostalaritza	14,3
Lana	14,3
Merkataritzako lokala	7,1
Hezkuntza	7,1
Komunikazioa eta internet	4,8
Gizarte-zerbitzuak	2,4

Iturria: Geuk egina

² "Komunikazioa eta Internet" kategoriak bi arloetan duen presentzia argitalpenen izaerarengatik da: arlo publikoan daude online bitartekoei atxikitakoak, sarbide publikoa dutenak. Arlo pribatuan daude egunkari nazionaletan argitaratutakoak, horiek irakurtzeko ale bat ordaindu edo harpidetu egin behar delako.

Eremu publikoan bide publikoa da diskriminazio-kasu gehien izan diren lekua (kasuen % 42,1). Atzetik, eremu birtualaren agertoki kontraesankorra dago (% 15,8). Komunikabideak eta bitarteko digitalak agertoki lagungarria izan dira diskurtso diskriminatzaileentzat, online ibiltzen diren erabiltzaile anonimoen parte-hartzea kudeatu eta arautzea zaila baita.

Presentzia txikiagoa du osasunaren arloak (% 15,8). Ezinbesteko arloa da hori, 2020ko martxotik osasun-sistemak markatu baitu testuinguru soziala. Azkenik, hezkuntza edo enplegua (% 10,5) edo etxebizitza publikoa (% 5,3) bezalako arloak daude. Historikoki presente egon izan dira Sareak identifikatzen dituen diskriminazio-eremuetan.

Eremu pribatuan etxebizitza da diskriminazio arlo nagusia (% 28,6). Hala dago jasota Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2020an argitaratu zuen diskriminazioari buruzko txostenean. Lan horren arabera, elkarrizketatutako pertsonen % 82,2k adierazi du etxebizitza dela diskriminazio arlo nagusia.

Etxebizitzaren atzetik daude banketxeak, 2021 an identifikatutako diskriminazio-kasuen espazio nagusi gisa (% 21,4). Hala, eremu pribatuko 5 kasutatik 1 halako erakundeetan gertatu da, erregularizazio-prozesuan edo egoera administratiboa berritzeko prozesuan zeuden pertsonen kontua zabaltzea eragotzi dietelako.

Banketxeak, atzerritarren aurkako diskriminazioaren agertoki nagusiak.

2021ean zehar, hainbat diskriminazio kasu izan dira atzerriko pertsonak banku-kontuetara sartu edo kontuak irekitzen ahalegindu direnean, haien egoera administratiboagatik.

Erakundeen barne-prozesuetan oinarritzen den jazoera hori oztopo garrantzitsua da atzerritarren pertsonen bizitzan, zaurgarritasun handiagoa baitute lan arloan eta baliabide ekonomikoetarako sarbidea mugatuago baitute. Horrek laneko bizitza eta bizitza pertsonal egonkorra garatzeko aukerak murrizten dizkie.


Aisialdiaren eta ostalaritzaren arloak ere nabarmentzen dira, baita lan arloa ere, diskriminazioa jasateko arlo nagusi gisa (% 14,3). Atzerritarren kasuan, diskriminazio hori lan-baldintza prekarioengatik gertatu ohi da, edo kontratatzaileak kontratatutako pertsonen egiten dizkien mehatxuengatik. Antzeko zerbait gertatzen da ijitoen kasuan ere. Zaila zaie lan-merkatura sartzera, eta lanpostu jakin batzuetara iristea oso zaila da haientzat.

Hori berresten du Ikuspegik egindako ikerketak: ijitoa izatea da lan-merkatura iristeko zailtasun nagusia elkarriketatutako pertsonen % 42,2rentzat.

LGTBI pertsonen kasuan. Lan-merkaturan dituzten arazo nagusiak kolektibo horren parte izateagatik jasaten duten tratu diskriminatzailea eta hitzezko erasoak dira. Kasu batzuetan, lankideen edo nagusien partetik jasaten dituzten irainak salatu dituzte, baita haien izateagatik jasandako diskriminazioa ere, transen kasuan.

Diskriminazio arloak begiradaren arabera

23. grafikoa. Diskriminazio arloak begiradaren arabera (2021).




Iturria: Geuk egina

Begiradaren arabera diskriminazio arlo nagusiak (pribatua/publikoa) zein izan diren aztertuz gero, ikus dezakegu arrazializatutako pertsonen kasuan, diskriminazioa eremu pribatuan gertatzen dela gehienbat. Hala, atzerritarren kasuan, salaketen % 88 eremu pribatukoak dira; ijito-herriaren kasuan, berriz, % 71,4.

Hortaz, sektore publikoaren balioak baxuak dira kasu horietan (% 12 eta % 28,6 hurrenez hurren). Kopuru horiek bestelakoak dira LGTBI kolektiboko pertsonen kasuan, banaketa askoz heterogeneo baita; kasuen % 51,7 arlo publikokoak dira eta % 48,3 pribatukoak.

Horrek pentsarazi diezaguke eremu publikoan diskriminazio ikusgarriak edo hain ikusgarriak ez direnak daudela, eta esperientzia batzuk ikusezinoak izan daitezke eremu publikotik kanpo gertatzen direlako. Horiek intzidentzia eta eragin handiagoa dute pertsonen bizitzetan.

24. grafikoa. Eremu publikoa: diskriminazio arlo nagusiak, % (2021).




Iturria: Geuk egina

Eremu publikoaren barruan, ikus dezakegu bide publikoa dela diskriminazioa presentean dagoen lekua. Garrantzitsua da baieztapen hori gogoan izatea; izan ere, horrek esan nahi du espazio publikoak erabiltzen dituzten edo horietatik igarotzen diren 10 pertsonatik 4k jazoera diskriminatzailearen bat jasan duela.

Atzetik daude etxebizitzaren eta osasunaren arloa (% 15,8). Horiek dira gertakari edo ekintza diskriminatzaileak pairatzeko bigarren espaziorik ohikoenak. "Normaltasun berriaren" testuinguruan, bi eremu horiek bereziki sentiberak dira; izan ere, osasun-sistema da presio eta exijentziarik handienetakoa duena, baita etxebizitzarena ere, itxialdiaren ostean erresistentzia eta desberdintasun-begirada jakin batzuk daudelako.

Atzetik dago hezkuntzaren arloa, eremu birtuala eta enpleguarekin lotuta dagoena. Horiek dira diskriminaziorako joerarik handiena duten hurrengoak (% 10,5). Horiek guztiak zerbitzu publiko bereziki sentiberak dira, bai belaunaldi berriekin lan egiten dutelako (hezkuntza), bai pertsonen gizarteratzerako tresna nagusia direlako (lan arloa). Komunikazioari eta Interneti dagokienez, eremu birtualetan dauden iruzkinak eta argitalpenak aipatu behar dira, arreta eta tratamendu berezia behar baitute.

Gráfico 25. *Ámbito público: principales áreas de discriminación según miradas, % (2021)*




Iturria: Geuk egina

Agertoki nagusien begiradaren arabera erreparatuz gero, ikus dezakegu deigarria dela ijito-herriaren diskriminazioarekin lotutako kasu guztiak eremu publikoan gertatzen direla, komunikazioen eta Interneten eremuan. Horrek adierazten du diskriminatzeke modu eta espazio berriak daudela, baita diskurtso diskriminatzaileen barruan ijitoen aurkako gorrotoa errotua dagoela ere.

Arlo pribatua

26. grafikoa. Eremu pribatua: diskriminazio arlo nagusiak, % (2021).



Iturria: Geuk egina

Eremu pribatuaren barruan etxebizitza da diskriminazio arlo nagusia. Alde horretatik, hainbat kasu daude auzokoen arteko erlazioetan eta familia barrukoetan arazoak daudela adierazten dutenak.

Bigarrenik, banketxeak dira diskriminazio horren agertoki nagusiak (kasuen % 21,4), batez ere atzerriko pertsonen kontuak irekitzeko orduan. Atzetik, enpleguaren arloa dago. Alor horretan kontratuzko harremanak, lan-baldintzak edo lankideen arteko erlazioa bereziki sentiberak dira kasu batzuetan. Hala, atzerriko pertsonen kasuan, laneko diskriminazioa gertatzen da gehienbat arlorik administratiboetan gehiegizko baldintzen edo diskriminatzaileengatik (kontratazioak, lan-baldintzak, egun libreak edo oporrak errespetatzea...). Transexualen kasuan, berriz, lankideekin eta nagusiekin dituzten harremanetan gertatzen da diskriminazio hori. Oro har, jasotako kasuek erakusten dute erlazio horiek transfobiak markatuta daudela, eta horrek salatzen duten pertsonen garapen profesionala eta pertsonala zailtzen du.


Ijitoen kasuan, enpleguan duten arazoa kontratazioetan dago, ijitoen aurkako printzipioengatik.

Desberdintasuna etxean bertan.

2021ean zehar, kasu batzuk ustez seguruena den eremuan gertatu dira: etxean. Jazoera horiek transen aurkakoak izan dira gehienbat, eta azaldu dute batzuetan haien inguruak ez zituztela ulertzen eta horregatik diskriminatuak sentitu direla.

Hala, zenbait familiak etxetik bota dituzte pertsona batzuk haien errealtatea ulertzen ez zutelako, eta pertsona horiek zaurgarritasun-egoeran utzi dituzte sozialki, etxebizitzaren aldetik eta psikologikoki; izan ere, hain eremu pribatu eta hurbilean hartzen den halako erabaki baten eragina zaila da kudeatzen. .

27. grafikoa. Eremu pribatua: diskriminazio arlo nagusiak begiradaren arabera, % (2021).



Iturria: Geuk egina

ABegiradaren arabera eremu pribatuko diskriminazio arlo nagusiak zein diren aztertuz, ikusi dugu atzeritarrak direla banketxeetan diskriminazioa jasan duten bakarrak (kolektibo horren kasuen % 40,9).


Atzetik daude etxebizitza baterako sarbidea eta etxebizitza bat izatea, segurtasun-baldintzekin eta eskubideen errespetu osoarekin. Hori da bigarren agertoki nagusia (% 22,7). Halaber, enplegua (% 13,6) merkataritzako lokalen, hezkuntza arloaren edo komunikazioaren eta Interneten (% 4,5) aurretik dago. Beste horiek kasu kopuru txikiagoa dute.

LGTBI kolektiboaren kasuan, etxebizitza da diskriminazioa gertatu den kasuen heren baten agertokia (% 33,3) 2021ean, aisialdiko eta ostalaritzako lokalekin eta enpleguarekin batera. Arlo horiek balio berdina dute (% 20). Atzetik dago hezkuntzaren arloa, kasuen % 13,6rekin. Kasu horiek lotuta daude gehienbat ikastetxeetan izan diren mezu eta jarrera homofono eta transfoboekin.

Azkenik, ijito-herriarentzat aisialdia eta etxebizitza dira diskriminazio eremu nagusiak (% 40). Hortaz, aisialdi eremua eta bizilekua ez dira eremu seguruak haientzat. Gainera, ijito-herriak salatutako kasuen bosten bat (% 20) dendetan eta merkataritzako eremuetan gertatu dira. Horrek erakusten du ijitoen aurkako gorrotoa hedatua eta indarrean dagoela.

Urratutako eskubideak

28. grafikoa. Urratutako eskubideak (2021)



Iturria: Geuk egina

Urratutako eskubideak aztertuz gero, ikus dezakegu 10 kasutatik 3 pertsonen intimitatearen aurkakoak zirela. Intimitate hori bizikidetzaren eremuan (bikote-harremanetan, familian edo pisukideen artean) urratu daiteke, baita lanean ere, lankideekin izandako harremanetan.

“Besteak” kategoriaren barruan daude banketxeetan kontuak zabaltzeko ezintasunarekin lotuta dauden kasuak. Kasu horiek hainbat aldiz errepikatu dira iaz.

Gutxiago ageri dira laneko (% 18,2) edo bizitzeko (% 11,4) eskubideen urraketak. Oso urriak dira osasunerako eskubidea (% 4,5), hezkuntzako, osotasun fisikoko eta etxebizitzako (% 2,3 kasu guztietan) urratzen duten kasuak.

BILTZEN-Integrazio eta Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak egindako txostena

3. **ERABEREAN** TXOSTENA **2022**


ERABEREAN TXOTENA 2022

3. ERABEREAN SAREAK 2022AN ARTATUTAKO KASUEN INGURUKO TXOSTEN KUANTITATIBOA (TAULAK ETA GRAFIKOAK)

AURKEZPENA

2022. urtean, Eraberean Sareak 60 diskriminazio-kasu identifikatu zituen guztira; horietatik %40 Bizkaian gertatu ziren, %32 Araban, eta %28 Gipuzkoan. Arabako Lurralde Historikoan jasotako kasuen beherakada nabarmena izan da, aurreko urtean jasotako kasuekin alderatuta %7 inguru jaitsi baitira.

1. grafikoa. Artatutako kasuak Lurralde Historikoaren arabera (2022)



Iturria: Geuk egina.

INFORMAZIO SOZIODEMOGRAFIKOA

Artatutako pertsonen profila


Eraberean Sarera diskriminazio-kasuak salatzeraz 2022an bertaratu ziren pertsonen adinari erreparatuta, ondoriozta dezakegu gazteak izan zirela baliabide horren erabiltzaile nagusiak.

Hala, Sarera euren egoeraren berri ematera jo zuten pertsona guztietatik % 40,35 ziren 30 urte artekoak, baina aitortu behar dugu adingabeen presentzia oso txikia dela. Muga 40 urtera arte zabaltzen badugu, pertsona guztien % 73,68ra iristen da ehuneko hori.

Aldiz, adin handiagokoei balio baxuagoak dagozkie: % 17,54, 41-50 urteko pertsonen kasuan, eta % 8,77, 51 eta 60 urte bitartekoen kasuan.

Aurreko txostenarekin alderatuta –hau da, 2021. urtekoarekin–, ikusten dugu kasuen banaketa, adin-tarteen arabera, antzekoa dela. Aurreko urtean, dena den, kasuak adin-tarte desberdinetan modu orekatuagoan banatuta daude.


2. grafikoa. Eraberean Sareak artatutako pertsonen adina (2022)



Iturria: Geuk egina.

Sareak artatutako pertsonen sexuari erreparatuz gero, nabarmena da presentzia handiagoa dagoela gizonena (% 53) emakumeena baino (% 45), eta bi ehuneko horiek askoz ere pisu handiagoa dutela pertsona ez-bitarrei dagokienak baino (kasu guztien % 2 baino ez). Azken batean – eta aurreko txostenetan gertatu zen bezala –, datuek sexuaren araberako banaketa berdintsua erakusten digute.

3. grafikoa. Eraberean Sareak artatutako pertsonen sexua (2022)



Iturria: Geuk egina.

Sexua eta adina aldagaiak gurutzatuta, kasuen banaketa honako hau da:

1. taula. Eraberean Sareak artatutako pertsonen adina/sexua aldagaien gurutzaketa (2022)

	0-17	18-30	31-40	41-50	51-60	61 eta gehiago	Guztira
Gizona	1 (%3,3)	13 (%43,3)	9 (%30)	4 (%13,3)	3 (%10)	0 (%0)	30 (%100)
Emakumea	0 (%0)	8 (%30,8)	10 (%38,5)	6 (%23,1)	2 (%7,7)	0 (%0)	26 (%100)
Ez bitarra	1 (%100)	0 (%0)	0 (%0)	0 (%0)	0 (%0)	0 (%0)	1 (%0)
Guztira	2 (%3,5)	21 (%36,8)	19 (%33,3)	10 (%17,5)	5 (%8,8)	0 (%0)	57 (%100)

Iturria: Geuk egina.

Oro har, gizona gehienak dagokienean, kasu gehienak 18-30 urte bitarteko artean gertatu dira (% 43,3). Multzo horren atzetik, 31-40 urte bitarteko pertsonak daude (% 30).

Halaber, emakumei dagokienean, kasu gehienak adin-tarte berean gertatu dira, baina alderantziz banatuta daude: kasu gehienak 31 eta 40 urte bitarteko artean gertatu dira (% 38,5) eta, ondoren, 18 eta 30 urte bitarteko artean (% 30,8). Azkenik, 41-50 urte arteko multzoan gertatutako diskriminazio-kasuak ditugu (% 23,1).

Azkenik, bitarrak ez diren pertsonen ari garela, urte horretan identifikatutako kasu bakarra adingabe batena da.


Diskriminazioa, belaunaldien arteko fenomeno

2022 urtean gazteak diskriminazio-gertakarien biktima edo lekuko izan dira. Gauzak horrela, behin baino gehiagotan, diskurtso edo praktika diskriminatzaileak identifikatu dira baita ikastetxeetan ere. Horrek prebentzioaren arloan oinarrizko mailetatik hasita lan egin beharra agerian uzten du.

Artatutako kasuak begiradaren arabera (Immigrazioa, Ijito Herria, LGTB)

Begiradak kontuan hartzen baditugu, aurreko urtean bezala, diskriminazio-kasu gehienak migratutako pertsonen aurkakoak izan ziren (% 48); ondoren, lesbiana, gay, transexual edo bisexualei eragiten zietenak (% 34) eta, azkenik, ijitoen oinarrizko eskubideen aurkako erasoak (% 18).

4. grafikoa. Artatutako kasuak begiradaren arabera (2022)



Iturria: Geuk egina.


Diskriminazio-zantzuak

2022an jasotako kasuak aztertuta, hurrengo ondorioa atera dezakegu: ia guztiek (% 97) diskriminazio-zantzuak zituzten. Horrekin lotuta, nabarmendu egin nahi dugu zantzu horiek duten garrantzia; izan ere, diskriminazioa frogatzeko funtsezko elementuak dira.

Horrek esan nahi du, besteak beste, urte horretan zehar Eraberean Sareak artatutako diskriminazio-egoera gehienek diskriminazio-zantzu objektiboak erakutsi dituztela, eta horrek aukera ematen diela Sareko abokatuei gertaera horiei ibilbide juridiko bat eskaintzeko. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da azpimarratzea, kasu guztiei (diskriminazio-zantzuak izanda ere) ez dagokiela ibilbide juridikorik; izan ere, prozedura

juridiko horren kudeaketa oker batek biktimaren biktimizazio bikoitza eragin dezake, baita biktimarengan frustrazioa sortu ere kontrako emaitza lortuz gero.

5. grafikoa. Diskriminazio-zantzuak 2022an artatutako kasuetan




Iturria: Geuk egina.

Diskriminazio-zantzuak begiradaren arabera

2022an artatutako kasuetan dauden zantzu frogagarriak, begiradaren arabera aztertuta, ikusten da begirada guztiei dagozkien kasuetan diskriminazio-zantzuak aurkitu direla, oso modu nabarmenean, gainera. Hala, LGTB begiradari atxikitako kasu guztiek diskriminazio-zantzuak erakusten zituzten, baita migratutako pertsonen kasuen %97ak ere. Eta ehuneko txikiena ijitoen kasuan dagoen arren, zantzu horien presentzia %91raino iristen da, gutxi gorabehera.

6. grafikoa. Diskriminazio-zantzuak begiradaren arabera (2022)




Iturria: Geuk egina.

Kasuaren irekiera

2022. urtean, 10 kasutatik 6 kaltetutako pertsonaren eskariz ireki ziren. Horrek esan nahi du biktima gehienak gai izan zirela gertakari diskriminatzailea identifikatzeko, eta Sarera jotzea erabaki zutela diskriminazio-kasu horren berri emateko.

Bestalde, gertaeren ia herena (% 28,3) Sarearen ekimenez ireki zen. Horrek adierazten du Sareak laguntza, bitartekaritza eta salaketa zerbitzua eskaintzeko gaitasuna duela, beharrezkoa denean. Kasu horien artean salatu ez diren kasuak daude, bai diskriminazioa bera identifikatu ez delako, baita errepresalien beldur, sistemarekiko mesfidantzagatik edo beste arrazoiengatik jakinarazi nahi izan ez direnak.

7. grafikoa. Kasuaren irekiera (2022)



Iturria: Geuk egina.


Kasuaren irekiera, begiradaren arabera

Eraberean Sarea osatzen duten hiru begiradetan, kasua irekitzeko bidea zein izan den aztertuta, ikusten dugu begirada guztietan kasu gehienak kaltetutako pertsonak eskatuta ireki zirela, datu orokorretan gertatzen den bezala. Hala eta guztiz ere, alde nabarmenak ikusten ditugu begirada bakoitza aztertzen badugu:

- *Immigrazio begiradari dagokionez, kasuaren irekiera modu berdintsuagoan banatuta dago kaltetutako pertsonak eskatuta irekitako kasuen (% 43,3), Sarearen ekimenez irekitako kasuen (% 36,7) eta lekuko batek salatutako kasuen artean (% 20).*

- *LGTB begiradaren datuei erreparatuz, biktimak eskatuta (bide nagusia) irekitako kasuen ehunekoa, aurrekoa baino 30 puntu inguru altuagoa dela ikusten dugu (% 73,7), ondoren, Sarearen ekimenez egindakoak ditugu (% 21,1), eta hirugarren pertsona batek salatutako kasuen ehunekoa %5,3ra jaitsi da.*
- *Ijito Herriaren begiradaren kasuan, datuek erakusten dute 10 kasutatik 8 kaltetutako pertsonak eskatuta ireki zirela, eta %18,2 Sarearen ekimenari zegozkiola. Azken begirada honetan, nabarmentzekoa da ez dela erregistratu hirugarren pertsona batek eskatuta irekitako kasurik.*

8. grafikoa. Kasuaren hasiera begiradaren arabera (2022)




Iturria: Geuk egina.

Artatutako pertsonen jatorrizko eremu geografikoa

Eraberean Sareak 2022an artatutako pertsonen eremu geografikoetan arreta jarrita, honako hau ikusiko dugu:

9. grafikoa. Artatutako pertsonen jatorrizko eremu geografikoa (2022)




Iturria: Geuk egina.

Hala, 10 kasutatik 7k Espainiako jatorria zuten (% 73,3), bigarren eta hirugarren jatorri ohikoenek baino askoz presentzia handiagoarekin, hau da, Latinoamerikakoena (% 10) eta Magrebekoena (% 8,3), hurrenez hurren.

Ehuneko txikiagoan beste jatorri batzuk daude, Afrika beltza (% 5), Europa (% 1,7) edo Mendebaldeko Sahara (% 1,7), esaterako.

Artatutako pertsonen jatorrizko eremu geografikoa, begiradaren arabera (2022)

10. grafikoa. Artatutako pertsonen jatorrizko eremu geografikoa, begiradaren arabera (2022)



Iturria: Geuk egina.

2. taula. Jatorrizko eremu geografikoa begiradaren arabera (2022)

	Immigrazioa	Ijito Herria	LGBTB	Guztira
Espainia	15 (% 50)	11 (% 100)	18 (% 94,7)	44 (% 73,33)
Latinoamerika	5 (% 16,7)	0 (% 0)	1 (% 5,3)	6 (% 10)
Magreb	5 (% 16,7)	0 (% 0)	0 (% 0)	5 (% 8,33)
Afrika beltza	3 (% 10)	0 (% 0)	0 (% 0)	3 (% 5)
Europa	1 (% 3,3)	0 (% 0)	0 (% 0)	1 (% 1,66)
Mendebaldeko Sahara	1 (% 3,3)	0 (% 0)	0 (% 0)	1 (% 1,66)
Guztira	30 (% 100)	11 (% 100)	19 (% 100)	60 (% 100)

Iturria: Geuk egina.

Immigrazioaren begiradaren barne dauden kasuetan, kasuen erdia (% 50) Espainiako biztanleen artean gertatu direla ikusten dugu, batez ere nazionalizazio-prozesuen ondorioz. Espainiako ez den beste nazionalitate bat duten pertsonen artean, Latinoamerikako eta Magrebeko biztanleen kasuak dira nabarmenenak (% 16,7), presentzia txikiagoa duten beste jatorri batzuen oso aurretik, hala nola Europako Erkidegoa edo Mendebaldeko Sahara (% 3,3).

LGTB kolektiboko pertsonen artean, gehienak (% 94,7) espainiarrak ziren, eta % 5,3 Latinoamerikako herrialderen batekoak.

Azkenik, Ijito Herriari buruzko kasu guztiek espainiar bat izan zuten biktima, beste jatorririk egon ez dela.

Artatutako kasuak jatorrizko herrialdearen arabera

3. taula. Artatutako kasuak jatorrizko herrialdearen arabera (2022)

Jatorrizko herrialdea			
Espainia	44	Italia	1
Maroko	4	Mauritania	1
Nikaragua	2	Nigeria	1
Senegal	2	Dominikar Errepublika	1
Venezuela	2	Mendebaldeko Sahara	1
Kolonbia	1	Guztira	60

Iturria: Geuk egina.

2022an diskriminazio kasuen biktimen jatorri nagusiak zein diren aztertuta, ikusiko dugu Espainia dela herrialderik ohikoena (44 kasu), beste jatorri batzuen gainetik, Maroko (4 kasu), Nikaragua, Senegal edo Venezuela (2 kasu), esaterako.

Azkenik, salatutako kasu bakarra duten beste hainbat jatorri aurkitzen ditugu, hala nola: Kolonbia, Italia, Mauritania, Nigeria, Dominikar Errepublika edo Mendebaldeko Sahara.


BIKTIMEN PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA, BEGIRADAREN ARABERA

Immigrazioa

Immigrazioaren begiradari dagokionean, ez dago Eraberean Sarean 2022an diskriminazio-kasuak salatu dituen pertsonaren profil jakinik, horietako bat baino gehiago daude. Nagusiena, 31-40 urte bitarteko gizona da (% 23), eta, ondoren, 18-30 urteko gizona zein emakumea (% 20 bata zein bestea).

Argazki hori aldatu egiten da aurrekoarekin –hau da, 2021. urtekoarekin– alderatuz: orduan 18 eta 30 urte bitarteko gizona (% 25) eta 31 eta 40 urte bitarteko emakumea (% 20) izan ziren ohikoenak. Datu horiek diskriminazioaren “gazteagotzea” erakusten dute, eta horrek gazteenei ere eragiten die.

11. grafikoa. Biktimen profil soziodemografikoa (Immigrazioa, 2022)



Iturria: Geuk egina.

4. taula. Biktimen profil soziodemografikoa, % (Immigrazioa, 2022)


Profila	%	Profila	%
<18 Gizona	3,3	<18 Emakumea	0
18-30 Gizona	20,0	18-30 Emakumea	20,0
31-40 Gizona	23,3	31-40 Emakumea	16,7
41-50 Gizona	6,7	41-50 Emakumea	10,0

Iturria: Geuk egina.

Salatutako gertakari diskriminatzaileek zenbat pertsonari eragin dieten kontuan hartuta, nabarmena da gehienak pertsona bati mugatuta egon direla edo pertsona baten eskubideen urraketatzat har daitezkeela (% 64). Ondoren, 10 kasutatik 2k (% 23) eskubide kolektiboen urraketa bat erakusten dute, atzerritar jatorriko pertsona

guztiei modu batera edo bestera eragiten diena. Horretaz gain, aipatzekoa da hainbat pertsonari eragiten dieten kasuak (hau da, akatsagatik, elkartzeagatik edo pertsona-talde jakin baten eskubideen aurka egiteagatik eragindako diskriminazio-gertakariak) ez direla hain nabarmenak, horiek % 13 izan baitziren.

12. grafikoa. Diskriminazio-kasuak, eragindako pertsona kopuruaren arabera, % (Immigrazioa, 2022)




Iturria: Geuk egina.

Arrazakeria eta xenofobia, zeharkako fenomenoak

Diskriminazio-gertakariren bat jasan duten atzerritarren egoera aztertzean, ikusten dugu ez dagoela profil nagusirik; hau da, talde heterogeneoei eragiten diela, sexuaren eta adinaren arabera. Horrek esan nahi du arrazializatutako pertsonen aurkako diskriminazioa fenomeno finkatu eta hedatua dela.


13. grafikoa. Biktimen profil soziodemografikoa (Ijito Herria, 2022)



Iturria: Geuk egina.

Esan beharra dago, Sarean identifikatutako ijitoen aurkako 10 diskriminazio-kasutatik 6, eskubide indibidualen urraketatzat hartu zirela. Eta osagarri gisa, komeni da hurrengo azpimarratzea: 10 kasutatik 4tan ijitoek azaldu zuten euren eskubideak urratu zirela ijito izate hutsagatik (hori funtsezko elementua da fenomeno diskriminatzaile bat ulertzeko, hau da, antigitanismoa) eta, gainera, adierazi zuten eurek garbi bereizten dituztela eraso pertsonalak eta herri gisa dituzten eskubideen aurkako erasoak..

14. grafikoa. Diskriminazio-kasuak, eragindako pertsona kopuruaren arabera (Ijito Herria, 2022)



Iturria: Geuk egina.

Genero-antigitanismoa


Ijitoen aurkako diskriminazioaz hitz egiteko ezinbestekoa da genero-antigitanismoa aintzat hartzea. Horrela, ulertu behar dugu emakume ijitoen aurkako diskriminazioa haien etniaren eta sexuaren interseksionalitatean datzala, eta gizon ijitoak baino egoera zaurgarriagoan daudela, baita emakume ez-ijitoekin alderatuta ere.

LGTB kolektiboa

2022an Eraberean Sarean diskriminazio-kasuak salatu dituen LGTB kolektiboko pertsona-profila maskulinoa izan da nagusiki (kasu guztien % 72,2 gizonak izan dira). Adinaren arabera banaketari erreparatuz, kasu gehienak 18-30 urteko gizonen artean gertatu dira (% 38,9) eta 31-40, 41-50 eta 51-60 urte bitarteko gizonen artean (% 11,1 kasu guztietan).

Aldiz, emakumeen presentzia txikiagoa da, aztertutako adin-tarte guztietan % 5,6koa.

15. profila. Biktimen profil soziodemografikoa (LGTB, 2022)




Iturria: Geuk egina.

Diskriminazio-gertakarien irismen mailari begiratu (pertsone bati, pertsona-talde bati edo kolektibo osoari eragiten dion), datuek erakusten digute kasu gehienak (% 64) LGTB kolektiboko pertsonen eskubideen aurkako eraso gisa identifikatu direla.

Ehuneko horretatik oso urrun pertsona baten edo batzuen eskubideen aurkako gertakariak ditugu. Errealitate horren azalpena haien talde-eskubideen ezagutza-maila handiago batean edo kolektibitatearen ideia sendoago batean aurki genezake.

16. grafikoa. Diskriminazio-kasuak, eragindako pertsona kopuruaren arabera (LGTB, 2022)



Iturria: Geuk egina

Kolektibitatea funtsezko elementua


2022an bildutako datuak aztertzean, nabarmentzekoa da Eraberean Sarrera jo duten LGTB pertsonak erakusten duten kolektiboaren ideia. Horrela, identifikatutako 10 kasutatik 7 inguruk kolektibo osoaren eskubideen aurkako erasotzat hartu dituzte, eta ez bakarkakoak eta noizbehinkakoak, orokortu gabeko zerbait balira bezala.

DISKRIMINAZIO-EREMUAK

Diskriminazio-mota

Eraberean Sareak 2022an artatutako kasu guztiak kontuan izanda, 10etik 8k baino gehiagok (% 84) diskriminazio zuzena agerian utzi zuten. Diskriminazio zuzena gertatzen da pertsona bat –bere etnia, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioagatik– antzeko egoeran dagoen baina halako ezaugarririk ez duen beste pertsona bat baino okerrago tratatzen dutenean (Eraberean, 2020). Bestalde, zeharkako diskriminazioa – hau da, planteamendu itxuraz neutrala baina ondorio diskriminatzaileak dituen kontratu edo itun baten ondorioz sortzen dena– % 16 ingurukoa izan zen.

17. grafikoa. Diskriminazio-mota (2022)




Iturria: Geuk egina

Diskriminazio-eremua

Oro har, 2022an diskriminazio-gertakari gehienak eremu publikoan gertatu ziren (% 62); eremu pribatuan, ordea, diskriminazio-gertakari kopurua askoz apalagoa izan zen (% 38).

Horrek alde handia dakar aurreko urtearekin alderatuta; izan ere, 2021ean egindako azterketaren arabera, diskriminazio-gertakari gehienak eremu pribatuan gertatu ziren (% 67,2), eta horrek esan nahi du aurten ehuneko hori 29 puntutan murriztu dela.


18. grafikoa. Diskriminazio-eremua (2022)



Iturria: Geuk egina

Bi eremu horietan (publikoan eta pribatuan) diskriminazio-gertakariak zein arlotan gertatu diren aztertuta, honako hauek izan direla ikus dezakegu:

19. Grafikoa. Eremu publikoa: diskriminazio-arlo nagusiak (2022)



Iturria: Geuk egina.

4. eta 5. taulak. Diskriminazioa zer arlotan gertatu den (2022)

Publikoa	%
Segurtasun indar eta kidegoak	% 21,6
Gune publikoak	% 16,2
Hezkuntza	% 13,5
Kom. Eta internet	% 10,8
Osasuna	% 10,8
Gizarte zerbitzuak	% 10,8
Justizia	% 5,4
Garraio bide publikoa	% 5,4
Kultura	% 2,7
Enplegua	% 2,7
GUZTIRA	% 100

Pribatua	%
Banketxea	% 43,5
Aisialdia	% 21,7
Enplegua	% 21,7
Etxebizitza	% 13,0
GUZTIRA	% 100

Iturria: Geuk egina.

Eremu publikoan, identifikatutako kasu gehienak Segurtasun indar eta kidegoekin lotuta daude, 10etik 2 inguru (% 21,6). Gainera, gune publikoak diskriminazio-egoeren eszenatoki nagusietako bat izaten jarraitzen du (% 16,2), eta horrek berriz ere adierazten du, diskriminatzaileek, euren ustez, gune publikoetan diskriminazio-tratua emateko duten zigorgabetasun-maila.

Hezkuntzaren eremua ere nabarmentzekoa da, bereziki sentibera baita, gazteek denbora gehien ematen duten arloetako bat delako. Gainera, diskriminazioak gazteei eurei eragiten die biktima direlako, baina baita familiei ere.

Eremu publikoan jasotako beste arlo sentiberenetako batzuk osasunarena eta gizarte-zerbitzuena izan dira (% 10,8). Kasu horietan, funtsezkoa da zerbitzu horiek pertsonen bizitzan duten garrantzia kontuan hartzea, baita zerbitzu horietan gertakari diskriminatzaile batek pertsonaren osasunean (fisikoa eta mentala) izan dezakeen eragina. Gainera, aurreko urteetan gertatu zen bezala, gune birtualak ere (komunikazioa eta internet) nabarmentzeko arloak dira.

Ehuneko apalagoarekin, beste zerbitzu bat aurkitzen dugu, pertsonen bizitzan oinarrizkoa: justizia (% 5,4); izan ere, batzuetan, diskriminazioak laguntza juridikoa eskatzen du, ibilbide hori gogorra izan daiteke eta, aldeko emaitza lortu ezean, etsigarria. Antzeko ehunekoak du garraio publikoak, Sarearen txostenetan historikoki jasotako beste gunek.

Azkenik, beste eremu batzuek ehuneko txikiagoak dituzte (% 2,7), hala nola kulturarenak edo enpleguarenak.

Eremu pribatuan, aurreko urtean bezala, banketxeak dira diskriminazio-gunak, batez ere biztanleria migratuarekin. Oro har, diskriminazio-tratua dela-eta, pertsona migratuentzako oztopo bihurtzen dira banku-kontuak irekitzea edo erabilgarri mantentzea, euren administrazio-egoera aitzakia delarik.

Horren ondoren, merkataritza-guneetan edo aisialdiarekin erlazioa duten lokaletan (tabernetan edo diskoteketan, esaterako) izandako gertakari diskriminatzaileak ditugu

(% 21,7), eta, askotan, gertakari diskriminatzaile horiek lokal batean sartzea ukatzeko eskubidearen aplikazioarekin justifikatzen dira, ustez.

Halaber, enplegua lortzea eta lanpostu batean eginkizunak garatzea ere diskriminazioak kolpatutako errealitateak dira (% 21,7), bai jatorri-arrazoiengatik, bai LGTB kolektiboko kidea edo ijitoa izateagatik.

Azkenik, etxebizitzaren eremua nabarmentzekoa da; izan ere, 2022an jasotako kasuetan bereziki presente dagoen beste eremu bat da (% 13). Kasu horietan, diskriminazioak auzo-harreman tirabiratsuak eta diskriminatzaileak sortarazten ditu, eta, batez ere, alokairu libreko merkatuan sartzeko mugak eta ukatzeak. Ildo horretatik, hainbat dira higiezin bat alokatzeko zailtasunari buruzko erreferentziak, batez ere arrazializatutako pertsonen adierazitakoak.

Diskriminazio-eremuen zeharkakotasuna


Eremu publikoan, poliziarekiko harremanak diskriminatzaileak izan daitezkeela ikusi dugu aurten ere, batez ere pertsona arrazializatuen kasuan (migratuak eta ijitoak). Horrela, urte honetan ere mesfidantza eta beldurra ager daitezke diskriminazio-gertakari bat salatzeke esperientziaren aurrean.

Bestalde, esparru pribatuan, banku-erakundeek ekintza diskriminatzaile ugari utzi dituzte agerian, batez ere, migratutako pertsonen artean, kontuak ireki eta mantentzearen inguruan.

Diskriminazio-eremua begiradaren arabera

Eraberean Sarea osatzen duten begirada bakoitzari erreparatuz, 20. grafikoa ematen duen informazio garrantzitsua lortu da.

20. grafikoa. Diskriminazio-eremua begiradaren arabera (2022)



Iturria: Geuk egina.


Aurreko grafikoa jasotako datuen arabera, migratutako pertsonak dira eremu pribatuan publikoan baino diskriminazio-kasu gehiago jasan dituzten bakarrak (% 53,3 eta % 46,7 hurrenez hurren).

Gainerako bi begiraden kasuan – hau da, LGTB kolektiboa eta Ijito Herria –, kasu gehienak eremu publikoan gertatu direla ikusten da, baina nabarmendu egin behar da

kasu gehiago gertatu direla pertsona lesbiana, gay, transexual eta bisexualen artean, ijitoen artean baino (% 73,7 eta % 63,6 hurrenez hurren).

Eremu publikoa

21. grafikoa. Eremu publikoa: diskriminazio-arlo nagusiak (2022)



Iturria: Geuk egina.

Eremu publikoan, migratutako biztanleriari dagokionean, diskriminazio-kasu gehienak Segurtasun indar eta kidegoekiko harremanekin lotutakoak izan dira (% 35,7), gainerakoekin oso alderatuta.

Neurri apalagoan gertatu dira diskriminazio-kasuak osasunaren eremuan (% 21,4) eta oinarrizko beste zerbitzu batzuetan (erroldatze-bulegoekin lotutakoak, batez ere), baita justizia arloan gertatutakoak ere.


LGTB kolektiboari eragin dioten kasuak kontuan hartuta, nabarmentzekoa da hezkuntza-eremuarekin lotutako espazioak (institutuak, ikastetxeak...) izan direla gehien agertu direnak (% 35,7), eta, batez ere, jendaurreko adierazpen homofoboak izan dira. Horren ondoren, gune publikoak (bide publikoa, gehienetan) izan dira diskriminazioaren agertoki nagusiak (% 21,4). Horren atzetik, etxebizitza eremuko diskriminazio-kasuak daude (% 14,3).

Azkenik, ijitoei dagokienez, oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako sarbidea izan da diskriminazio-gune nagusia (% 42,9), eta haren atzetik datoz osasunari edo etxebizitzari lotutakoak (% 14,3). Azken horien antzeko presentzia dute beste batzuek ere, hala nola Segurtasun indar eta kidegoekiko harremanak edo eremu birtualean ematen diren komunikazioak, agerian utziz antigitanismoa errealidade bat dela eta hainbat forma eta intentsitate hartzen dituela, batzuetan identifikatzen zailak ez direnak.

Eskubide publikoak, bermatu gabe.

2022ko datuek erakusten digutenez, diskriminazio-egoera ugari daude, besteak beste, osasunean, oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan eta justizian.

Gauzak horrela, ondorio honetara iritsi gaitezke: diskriminazioa ez da pertsona eta taldeen eremu pribatuari bakarrik eragiten dion zerbait; batzuetan, egoera diskriminatzaileak historikoki onartu eta errepikatu egin dira, eta horretan oinarrituta, justifikatu eta instituzionalizatu egin den zerbait dira.

Eremu pribatua.*22. grafikoa. Eremu pribatua: diskriminazio-arlo nagusiak (2022)*

Iturria: Geuk egina.

Eremu pribatuaren kasuan, diskriminazio-arlo nagusia etxebizitzari dagokio (% 33 biztanleria migratuaren kasuan, % 60 LGTB pertsonen kasuan eta % 50 ijitoen kasuan), eta oinarria du, batez ere, etxebizitza bat alokatzeko edo erosteko orduan sortzen den arazoan.


Horren ondoren, begirada bakoitzerako testuinguru desberdinak aurkezten dira:

- Pertsona migratuen artean, enplegua lortzea (% 26,7) eta banketxeekiko harremana (% 20) dira gehien ageri diren gune diskriminatzaileak. Lehenengo kasuan, lan-merkatuan sartzea eta lan-baldintzak errespetatzea dira identifikatutako oztopo nagusiak. Bigarrean —hau da, banku erakundeekiko harremanari dagokionean—, aurrezki-kontu bat irekitzeko edo irekita mantentzeko gertatzen da diskriminazioa, pertsona migratuen administrazio-egoeraren aitzakiarekin.
- LGTB kolektiboak diskriminazioa salatu du aisialdiarekin lotutako lokaletan eta merkataritza-guneetan, baita enpleguaren esparruan ere (% 20). Ildo horretatik, ohikoa da gaueko lokaletan (tabernetan edo diskoteketan, esaterako) gertatzen den diskriminazioari buruzko diskurtsoak entzutea, baita lan-harremanetan gertatzen den diskriminazioari buruzkoak ere (arrazoi *homofoboak/transfoboak/bifoboak* dituen *mobbing*-a esaten zaiona), bai lankideekiko harremanetan, bai nagusiekiko harremanetan.
- Halaber, ijitoek ere merkataritza- eta aisialdi- lokalak gune diskriminatzaile gisa nabarmentzen dituzte (% 25); izan ere, merkataritza-lokalen barruan —hala nola dendetan edo supermerkatuetan— ohikoa da ijitoek jarraipena eta jazarpena pairatu behar izatea. Gainera, azpimarratu dute Internet zigorgabetasun-gunea dela ijitoen aurkako diskurtsoarentzat (% 25), ohikoa baita argi eta garbi antigitanoak diren argitalpenak edo testuak aurkitzea.

Eremu pribatua, zigorgabetasunik ez.

Txostenean egiaztatu dugunez, eremu pribatuetan (etxebizitza edo lanpostuetan, esaterako) diskriminazio kasuei buruzko erreferentzia ugari daude. Ildo horretatik, garrantzitsua da azpimarratzea diskriminazio-gertakariak ezin direla onartu eremu horietan ere. Bestalde, komeni da nabarmentzea zenbaitetan diskriminazio-gertakari horiek antzematen zailak direla; izan ere, egoera diskriminatzaile batzuk normaldu egin dira (*hori beti izan da horrela*), baita euren garrantzia txikiagotu ere (*beno, ez da hainbestera*).

23. grafikoa. Urratutako eskubideak (2022)



Iturria: Geuk egina.

Azkenik, azpimarratu behar da intimitatea berriro ere gehien urratu den eskubideen artean dagoela Eraberean Sareak 2022an jasotako kasuetan. Hala, 4 kasutik 1ean (% 24,3) ukatu edo mugatu egin da eskubide hori baliatzea, baita etxebizitza izateko eskubidearen urraketa ere (% 17,1).

“Beste” atalaren barruan, besteak beste, duintasunaren urraketa dago (pintada homofobo, arrazista, xenofobo edo antigitanoen bitartez), espazio fisiko zein birtualetan. Horrek diskriminazio-modu sakonak adierazten ditu, ohikoez gaindi, beste testuinguru eta eszenatoki desberdinetara egokituak.

Nabarmenezkoa da, halaber, osotasun fisikoarekiko errespeturik eza (% 12,9), eta horrek agerian uzten du kasu batzuetan jokabide diskriminatzailea aparta dela eta ahozkoaren muga gainditzen duela.

Modu ez hain agerikoan – baina ez dira horregatik garrantzi gutxiagokotzat jo behar –, zerbitzu publikoekin lotutako beste eskubide batzuk aurkitzen ditugu, hala nola osasuna (% 7,1), hezkuntza edo justizia (% 5,7 bi kasuetan), eta modu txikiagoan beste batzuk, hala nola bizitzeko eskubidea (% 4,3) eta lanerako eskubidea (% 2,9).

BILTZEN-Integrazio eta Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak egindako txostena

4. ERABEREAN
SAREAREN KASUEN
LEHENENGO PLANOAK

ERABEREAN SAREAREN KASUEN LEHENENGO PLANOAK

Aurreko atalean ikusi dugu 2021 eta 2022 artean Erabereanek diskriminazioaren 121 biktima/kasu artatu zituela (123 jazoerari erantzun zioten, bi kasu diskriminazio bikoitzak izan baitziren). Taula eta grafiko horien humanizazioa nabarmenduz (ez daitezene soilik kopuruak izan, baizik eta fokuari erdian kokatzen diren pertsonak), 123 diskriminazio-jazoera horiek xehatuko ditugu jarraian. 14 arlotan gertatu dira guztira:

- Saltokiak eta banketxeak (16)
- Aisialdi-lokalak: tabernak, diskotekak eta kafetegiak (15)
- Etxebizitza (13)
- Enplegua (13)
- Hezkuntza: ikastetxeak, akademiak eta unibertsitateak (10)
- Segurtasun-indarrak eta ordenaren indarrak (10)
- Bide publikoa (9)
- Komunikabideak eta sare sozialak (9)
- Osasuna (8)
- Herritarren arretarako bulegoak eta beste zerbitzu publiko batzuk (7)
- Bizilagunen arteko erlazioak (6)
- Gizarte-zerbitzuak, publikoak eta pribatuak (3)
- Garraio publikoa (2)
- Familia-harremanak (2)

2021AN ETA 2022AN IZANDAKO 123 DISKRIMINAZIO JAZOERAK ARLOAREN ARABERA XEHATUTA

Goian aipatutako arloak kaltetutako kolektibo nagusien identifikazioarekin (ijito herria, LGBTBI+ kolektiboa, edo etorkinak eta arrazializatuak) gurutzatzen baditugu, honakoa da irudia:

1) SALTOKIAK ETA BANKETXEA (16 jazoera)

Arlo honetan, 16 jazoera izan ziren bi urtetan.

Horietako 2tan (2 kasutan), biktimak **LGTBI kolektiboko** pertsonak izan ziren: emakume transexual bat ahoz umiliatu zuen saltoki handi bateko langile batek; eta supermerkatu bateko bezero homosexual bat umiliatu zuen establezimendu horretako langile batek, bere "luma" kritikatu.

Jazoera batean, emakume **ijitoa** izan zen biktima, eta ijitoa izateagatik dendara sartzea debekatu zioten (kasu 1).

Arlo honetako jazoera gehienak **etorkinen edo pertsona arrazializatuen** aurka izan ziren, eta, bereziki, bankuek oinarrizko kontua zabaltzeko eskubidea ukatu zieten etorkinen aurka (8 kasu). Beste kasu batzuetan, zabaldu zieten, baina bizi-aseguru bat erostera behartu zituzten oinarrizko kontu hori izateko (kasu 1); edo gerora blokeatu egin zieten, dokumentazioa berrituta ez izateagatik (2 kasu) edo kopuru batetik gorako diru-sarrerarik ez izateagatik, nahiz eta errealitatean kopuru hori gainditu (1 kasu).

Halaber, etorkina zen supermerkatu batean motxila bat eramateagatik kutzako langileak lapurtzen ari zela esan zion pertsona (kasu 1).

2) AISIALDI TOKIAK: TABERNAK, DISKOTEKAK ETA KAFETEGIAK (15 jazoera)

Aisialdi-tokien kasuan, 9 jazoeratan biktimak **LGTBI+** kolektibokoak ziren. Zehazki, emakume trans batek sexu-eraso bat jasan zuen taberna batean (kasu 1). LGTBI+ kolektiboko hainbat pertsonari eraso egin zieten fisikoki tabernetan (3 kasu). Taberna bateko zerbitzari transexual bati ahozko eraso eta eraso fisikoa egin zizkion bezero batek (kasu 1). Bi gizon gay pub batetik bota zituzten musuka aritzeagatik (kasu 1). Gizon bati Donostiako taberna batera sartzea ukatu zioten gona eramateagatik (kasu 1). Ermuan, urtebetetze-festa batean eraso bat izan zen (kasu 1). Venezuelako emakume trans bat iraindu egin zuten Qatarreko munduko txapelketaren aurkako jarrera izateagatik (kasu 1): Qatar herrialdea kritikatu zuen LGTBI+ pertsonen giza eskubideak urratzen dituelako.

Arlo honetan 4 diskriminazio izan dira **ijitoen** aurka. Kasu batean, emakume ijito batek kafetegi bateko bezero batek eragindako ahozko erasoak jasan zituen, eta mugikorra lapurtu izana egotzi zion (kasu 1). Beste kasu batean, bezero bati antzeko irainak bota zizkioten ijitoa izateagatik (kasu 1). Beste jazoera batean, ijito talde bati taberna batera sartzea ukatu zioten, ijitoak izateagatik. Kudeatzaileak arrazoitu zuen “ijitoen % 80k arazoak sortu dituztela edo ordaindu gabe joan direla” (kasu 1). Bereziki mingarria izan zen Bilboko taberna bateko zerbitzariak ijitoen etniako haur batzuk gutxietsi zituenekoa, terraza batean gozoak jaten ari ziren bitartean (kasu 1).

Etorkinen edo pertsona arrazializatuen aurkako jazoeren biktimak bi gizon atzerritar izan ziren: lehenengoak, mespretxuzko tratua jaso zuen kafetegi batean (kasu 1) eta besteari eraso egin zioten (kasu 1).

3) ETXEBIZITZA (13)

Alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko garaian diskriminaziorik handiena jasan duen kolektiboa **etorkinena edo arrazializatuena** izan da. 6 diskriminazio-kasu izan dira higiezinaren etxeetan eta 2 diskriminazio-kasu partikularren arteko alokairuetan.

Ijitoen aurkako diskriminazio-kasuak izan dira ugarietak gero. Hala, 2 kasutan, etxebizitza bateko jabeak alokatzeko interesa zuen pertsonari galdetu zion eta ijitoa zen, eta, baietz erantzun zuenean, errespetua faltatu eta alokatzeko aukera ukatu zion, “badakigu ijito-familiak nolakoak diren” adieraziz.

LGTBI+ kolektiboaren barruan, mutil atzerritar eta gay batek salatu zuen etxebizitzaren alokairuan iruzur egin ziotela (kasu 1). Emakume transexual bat pisua uztera behartu zuten transexuala izateagatik (kasu 1). Eta maizter batek mehatxuak eta irain homofoboak jaso zituen bikote alokatzailearen partetik (kasu 1).

4) ENPLEGUA (13 kasu)

Lanaren arloan, etorkinen edo pertsona arrazializatuen aurkako diskriminazioak 7 izan ziren, LGTBI+ kolektiboaren aurkakoak 4, eta bi kasutan biktimak ijitoak izan ziren.

LGTBI+ kolektibotik hasita, bi emakume transi lanpostua ukatu zieten: bati borondatezko baja hartzeko gonbita egin zioten transexuala zela jakitean eta bestea kontratatu aurretik errefusatu zuten (2 kasu). Pertsona batek salatu du Ertzaintzarako hautaketa-prozesuan bere sexu-orientaziogatik diskriminatua izan zela (kasu 1). Eta enplegatu bat bere lanpostuan iraindu zuten irain homofobo eta arrazistekin (kasu 1).

Diskriminazio **arrazisten eta xenofobo**en biktimak hauek izan ziren: hainbat nazionalitateko mutil atzerritar batzuk esplotatu egin zituzten Bilboko baratxurien eta tipulen biltegi batean (kasu 1). Emakume musulman bati debekatu egin zioten enpresa batean praktikak egitea zapia eramateagatik (kasu 1). Senegaleko 15 arrantzale lan-esplotazioaren biktima izan ziren (kasu 1). Etxeko langile batek sexu-zerbitzuak egiteko aukera gehitu zion kontratatu zuen emakume beltzari (kasu 1). Bi lankide magrebtarrek Erdialdeko Amerikako langile bat iraindu egin zuten lantokian (kasu 1). Eta enplegatu bat bere lanpostuan iraindu zuten irain homofobo eta arrazistekin (kasu 1). Ospitaleko laguntzaile bati eraso egin zion bere lankide batek lantokian, irain arrazistekin (kasu 1).

Ijitoei lan-arloan egin dizkieten diskriminazioei dagokienez, enpresa bateko enplegatuen whatsapppeko taldean, langile bati barre egin zioten bere izeba ijitoa zelako. Ondorioz, sindikatuak ijitoen aurkako iruzkinen aurka egin zuen (kasu 1). Lanbideko orientatzaile batek emakume ijito bat kanporatu zuen Txurdinagako Lanbideren bulegoetatik (kasu 1).

5) HEZKUNTZA: IKASTETXEAK, AKADEMIAK eta UNIBERTSITATEAK (10 kasu)

Hezkuntzaren arloan, **LGTBI+** kolektiboaren aurkako 9 jazoera izan dira. Zehazki, LGTBI+ kolektiboko bi pertsonak salatu zuten ikasle zirela Lanbide Heziketako edo Unibertsitateko irakasleek (2 kasu) mespretxuzko tratua eman zirela. Halaber, Txurdinagako gizarteratzeko goi-mailako ikastetxe batean, irakasle bat femeninoan zuzendu zitzaion maskulinoan tratatzeko eskatu zion ikasle transexual bati (kasu 1). Ikasleekin udal-antzokira egindako irteera batean, irakasle batek diskurtso transfobikoa izan zuen (TERF), eta aktore transa iraindu zuen ikasleen aurrean, pertsona transak tartean zirela (kasu 1). Aipatzekoak da halaber Berdinduk institutu batean egindako irakasleentzako sexu-dibertsitateari eta genero-dibertsitateari buruzko prestakuntza batean, irakasle batzuek diskurtso negatiboa egin zutela trans errealitateei, politikei eta jasotzen dituzten zerbitzu publikoei buruz (2 kasu).

Ikasleen eta irakasleen partetik jasandako jazarpenari dagokionez, sexu-orientaziogatik jazarpen-kasu bat izan zen bigarren hezkuntzako ikastetxe batean (kasu 1). Eskola publiko bateko horman pintaketa homofoboak agertu ziren goiz batean (2 kasu).

Azkenik, hezkuntza arloan, lanbide heziketako akademia batek **atzerriko pertsona** bati iruzur egin zion matrikula ordaintzeko banku-mailegu bat sina zezan (kasu 1).

6) SEGURTASUN INDARRAK ETA ORDENAREN INDARRAK (10 kasu)

Segurtasun-indarrekin eta ordenaren indarrekin izandako jazoeren artean, **LGTBI+** kolektiboaren aurkakoak izan ziren bi. Zehazki, gizon homosexual batek ertzain batek eragindako eraso fisikoa salatu du (1 kasu). Eta beste biktima batek ere Ertzaintza salatu zuen, biktimak azaldu zituen irain homofoboak eta eraso fisikoa osorik jaso nahi ez zituelako atestatuan.

Etorkinek edo pertsona arrazializatuak jasandako jazoerei dagokienez, 8 izan ziren. Agurainen bizi den emakume dominikar batek salatu zuen poliziak Gasteizko Renferen geltokian etengabe identifikatzen zuela profil etnikoa izateagatik. Lan-kontua zela eta, egunero joaten zen Gasteizko Renfe geltokira. Halaber, bi gazte arabiar profil etnikoagatik identifikatu zituen udaltzaingoak (2 kasu). GKE bateko erabiltzaile marokoar batek polizia sekretuak eragindako mehatxuak eta tratu diskriminatzailea salatu zituen (kasu 1). Gasteizko herritar batek salatu zuen poliziak afrikar bati egindako eraso ikusi zuela (kasu 1). Polizia-etxe batean, espedienteak itzultzen zituen langileak oztupoak jarri zizkion Ukrainan bizi zen Georgiako familia bati Aldi Baterako Babesa jasotzeko (kasu 1).

Halaber, segurtasun-indar pribatuen aurkako salaketak ere jaso dira, zehazki 2: supermerkatu bateko segurtasun-zaindari bati salaketa jarri zioten haur bati mototzikloarekin sartzen ez uzteagatik eta bere gurasoei irain arrazistak egiteagatik, haien jatorria zela eta (kasu 1). Zentro bateko beste segurtasun-langile bati salaketa jarri zioten etorkin bati eraso egiteagatik (kasu 1).

7) BIDE PUBLIKOA (9 kasu)

Bide publikoan izandako jazoera diskriminatzaile guztietan biktimak **LGTBI+** kolektibokoak izan dira. Hauek izan dira: Hainbat pertsonari eraso egin zieten fisikoki –bide publikoan, parke batean...– LGTBI+ kolektibokoak izateagatik (5 kasu). Basaurin, parke publiko batan, sexu-orientazio anitzeko pertsona bati eraso egin zion lagun talde batek (kasu 1). Emakume trans bat bortxatu egin zuten kalean (kasu 1). Santurtziko jaietan gizon bati eraso egin zioten sareta-zoko lore-dun alkandora eramateagatik (kasu 1). Neska bat jazarri egin zuten ortzadarraren poltsa eramateagatik (kasu 1).

8) KOMUNIKABIDEAK ETA SARE SOZIALAK (9 kasu)

Komunikabideetan eta sare sozialetan LGTBI+ kolektiboaren, ijito herriaren, eta etorkinen edo pertsona arrazializatuen aurkako eduki diskriminatzaileak ugaritu egin dira azkenaldian.

LGTBI+ kolektiboaren aurkako eduki iraingarriei dagokienez, Twitch sare sozialean bideo homofobo bat birala egin zen (kasu 1) eta Twitterren iruzkin oso transfobikoak zabaldu ziren, karta-joko bateko ilustrazioei dagokienez (kasu 1).

Ijito herriaren aurkako iruzkin iraingarriei dagokienez, estatuko egunkari baten euskarri digitaleko iruzkinetan, Twitterren eta beste sare sozial batzuetan irain arrazistak idatzi zituzten (4 kasu). Halaber, telebista-kate orokor batean, ijito herriaren aurkako iruzkinak egin zituzten (kasu 1).

Etorkinei edo pertsona arrazializatu egindako iruzkin iraingarriei dagokienez, EAEko Afrikako komunitateko kideei barre egin zieten Euskadin oso ezaguna den egunkari bateko bineta baten harira. Bineta hark Afrikako herrien azpigarapena islatzen zuen (kasu 1). Halaber, afrikarren ondorengo emakume batek irain arrazistak jasan zituen Instagramen (kasu 1).

9) OSASUNA (8 kasu)

Osasun-arloko 8 kasutatik 5ean biktimak **etorkinak** izan ziren, eta haien dokumentazio administratiboarekin lotutako arrazoiengatik diskriminatu zituzten. Zehazki, administrazio-egoera irregularrean zeuden edo asilo-eskaera ukatu zitzaizkien hiru

pertsonari ezezkoa eman zien aldundiak desgaitasun-balorazioak egiteko garaian (3 kasu). Kontua izan behar da ezezko horren ondorioz ezin dutela desgaitasun-aitortza horrek dakartzan eskubideetarako sarbidea izan, hala nola babestutako enplegurako sarbidea. Horrek beren egoera erregulatzeko aukera emango luke, esaterako. Transplanteen protokoloan sartzen utzi ez zioten Mauritaniako pertsona batena izan zen beste kasu bat, gutxienez bi urtez dokumentua ez zuelako arautua izan (kasu 1). Ikusteko desgaitasuna eta bizileku-baimen komunitarioa duen Senegalgo gizon bat ONCEk ez du onartu Espainiako nazionalitatea ez izateagatik (1 kasu).

LGTBI+ kolektiboko pertsonen aurkako jazoeren artean, trans neska batek salatu zuen osasun-zentro publikoko bere medikuak ez zuela emakume gisa eta femeninoan tratatzen (kasu 1). Beste kasu bat egoitza batean ingresatuta zegoen eta buruko gaixotasun bat zuen adineko pertsona baten senide homosexualarena izan zen. Senide horri gorde-antzean egotzi zioten gaixoari sexu-erasoa egin izana, zauri batzuk zituelako. Zauri horiek, egiaz, pixoihalak denbora luzeegiaz eramategatik atera zitzaizkion (kasu 1).

Azkenik, emakume **ijito** batek salatu zuen ospitale publiko bateko Larrialdietan erizain batek mespretxuzko tratua eragin ziola (kasu 1).

10) HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOAK ETA BESTE ZERBITZU PUBLIKO BATZUK (7 kasu)

Herritarren arretarako bulegoetan, mespretxuzko tratua edo begirunerik gabeko tratua egoera jakin batzuk salatu dituzte **LGTBI+** kolektiboko pertsonak. Zehazki, pertsona batek salatu zuen Gasteizko Zuzenean arreta-zerbitzuan iruzkin homofobia jaso zuela (kasu 1). Halaber, emakume trans batek salatu zuen hainbat administrazio publikotan diskriminatu zutela, hala nola Osakidetzan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu batean, Errolda Bulego batean, eta Lanbiden, gizonen izenarekin tratatzen jarraitzen zutelako bera emakumea izan arren (kasu 1).

Etorkinek jarritako salaketen artean, arrazializatutako emakume trans batek salatu zuen hainbat administrazioetan diskriminatu egin zutela, arrazializatua izateagatik (kasu 1). Beste bi kasutan, Erregistro Zibileko bi bulegotan, Venezuelako adingabe bati erregistratzeko oztupoak jarri zizkioten (kasu 1) eta mespretxuz tratatu zuten

Nikaraguako emakume bat (kasu 1). Gasteizko Udalaren Errolda Bulegoari salaketa jarri zioten herrialdeko pertsonekin alderatuta, atzerriko pertsonak diskriminatzen dituen araudia aplikatzeagatik (kasu 1).

Ijito-herriaren aurkako diskriminazioari dagokionez, agerikoa izan zen Barakaldoko Epaitegiaren kasua. Izan ere, Kale Dor Kayiko Ijitoen Elkarteari deitu zioten ijito-etniako pertsona bat bidaltzeko, gaizkile bat talde identifikazio-saio batean parte har zezan (kasu 1).

11) BIZILAGUNEKIN ERLAZIOAK (6 kasu)

Bizilagunen arteko harremanen konplexutasuna agerian geratu da aztertzen ari garen aldian erregistratu diren jazoeren kopuruan eta jazoera-motetan.

LGTBI+ kolektiboaren barruan, gizon gayen bikote bati eta emakume trans bati haien auzoetan irainak egin zizkioten homosexualak eta transexualak izateagatik (3 kasu).

Etorkinen eta pertsona arrazializatuen taldearen barruan, bizilagunek atzerriko emakume bat iraindu egin zuten etorkina izateagatik (kasu 1); eta gazte saharar batek bizilagunen jazarpena jasan zuen Amurrioko bere atarian (kasu 1).

Ijito herriaren barruan, leku berri batera joan berri zen ijito-familia batek salatu zuen bizilagun batek molestatu eta jazarri egiten zituela ijito-etniako pertsonak onartzen ez zituelako (kasu 1).

12) GIZARTE ZERBITZUAK publikoak eta pribatuak (3 kasu)

Eraberean Sareak **LGTBI+** pertsonen 2 kexa jaso zituen: Adingabeentzako harrera-zentro batean bizi zen neska trans batek salatu zuen zentroan ez zutela femeninoan tratatzen (kasu 1). Gizon gay batek salatu zuen diskriminatua sentitu zela gizarte-zerbitzu guztien partetik, publikoak eta pribatuak (kasu 1).

Etorkinen kolektiboaren barruan, emakume batek salatu zuen atzerritarra izateagatik diskriminatu egin zutela elikagaien banku batean (kasu 1).

13) GARRAIO PUBLIKOA (2 kasu)

Garraio publikoan, diskriminazioaren bi biktimak jazoera batzuk jasan izana salatu zuten.

Zehazki, bi emakume **etorkin** beltzek salatu zuten Gasteizko autobus-linea bateko gidaria ez zela gelditu haiek geltokitik igo nahi zutela esan ziotenean, eta, azkenik igotzea lortu zutenean, iraindu egin zituela (kasu 1).

Bigarren jazoera **ijito-etniako** emakume batek jasan zuen. Autobusean zihoan eta ijitoa ez zen beste emakume erabiltzaile batek diru-zorroa lapurtu izana egotzi zion. Gero jakin zuten diru-zorroa bere senarrari erori zitzaiola autobusetik jaisterakoan (kasu 1).

14) FAMILIA HARREMANAK (2 kasu)

Erabereanen erregistratutako familia barruko bi diskriminazio-kasuak **LGTBI+** biktimenak izan ziren. Zehazki, emakume marokoar transexual batek salatu zuen bere familiak baztertu egin zuela transexuala izategatik (kasu 1); eta mutil bati eraso eta irain homofoboak egin zizkion bere osabak (kasu 1).

3.2. HIRU DISKRIMINAZIO ARLOREN HURBILPENA

123 jazoera horiek xehatu ondoren, gure galdera da: Nola joratu ditu Eraberean sareak kasuok? Lagin gisa, jarraian **3 arlo sakonduko** ditugu, Sareak jarduteko duen moduaren adibide izan daitezten.

Zehazki, gure proposamena da lehen planoetako zirriborro hauek egitea:

1. diskriminazioa aisialdi-lokaletarako eta establezimendu publikoetarako sarbidean.
2. diskriminazioa etxebizitzaren alokairuan;
3. diskriminazioa poliziak profil etnikoagatik egiten dituen identifikazioetan.

1. DISKRIMINAZIOA MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUETARAKO ETA AISIALDI-LOKALETARAKO SARBIDEAN.

Emakume bat, haren erraina eta bi bilobak Bilbon zebiltzan paseoan. Emakume nagusia ohartu zen garbiketako produktu batzuk erosi behar zituela etxerako. Alicia du izena eta C dendako ohiko bezeroa da. Hortaz, hara joatea erabaki zuen. Alabaina, establezimendura sartu zenean, saltzailea ez zen normalean egon ohi zena eta oihu egin zien ezin zutela sartu esanez, alde egiteko. Dendan ez zituela nahi esan zien; "ijitoak zaretelako eta haur-kotxearekin lapurtzera etortzen zaretelako". Udaltzaingoari deitu zioten.

Udaltzainak establezimendura iritsi zirenean eta istorioa entzun zutenean, Alicia dendatik ateratzera behartu zuten. Kanpoan erreklamazio-orria eskatu zien Aliciak eta udaltzainak esan zion bezeroa ez zelako ez ziola eman. Halaber, esan zion salaketa jarri nahi bazuen Miribillako polizia-etxera joan behar zuela. Alicia Miribillara joan zen eta beste udaltzain batek esan zion han ezin zuela halako salaketarik jarri, Kontsumobidera joan behar zuela. Kontsumobiden jakinarazi zioten salaketa establezimenduan bertan jarri behar zuela. Azkenean kasua Biltzenera eta Eraberean Sarera bideratu zuten.

Eraberean Sareak kasua jaso eta onartu egin zuen. Kasua jorratzeko abiapuntua da merkataritzako establezimendu batera sartzea ukatu dietela eta hori **prestazio publiko edo pribatuen ukapenaren** arlorik zabalaren barruan dagoela. Diskriminazio-jarduketa horiek zigor-izaera izan dezakete eta **Zigor Kodearen 511 eta 512 artikuluetan** daude jasota. Lehenengoak eremu publikoko zerbitzuak ukatzeari egiten dio erreferentzia; eta 512. artikulua zigortu egiten du enpresaburua edo negozio pribatu baten arduraduna, pertsona bati eskubidea duen prestazio bat ukatzen badio.

Aliciaren kasura itzuliz, eta etnia batekoa izateagatik jasandako diskriminazioa izanik zigor-bidea izan zezakeen arren, bide hori ez aktibatzea erabaki zuen.

Antzeko gauza bat gertatu zen aisialdirako lokal batean bi gizon homosexualen aurka:

Bikote homosexual bat sutuki musuka ari zen Z. taberna barruan, Donostiako Gros auzoan. Uztailaren 21eko arratsa zen eta taberna beteta zegoen. Orduan, zerbitzari bat haiengana joan zen eta mutilen bertsioaren arabera, haien jarrera leporatu zien eta tabernatik ateratzera ere animatu zituen. Arrazoitu zuen ostalaritza-establezimenduko jabeari ez zaizkiola halako jarrerak gustatzen. Establezimenduaren arduradun horren arabera, bikoteari eskatu zioten gauza bakarra izan zen publikoan zeuden bitartean maitasun-praktika hori lasaitzeko, familientzako taberna bat baitzen. Mutilek, haserre, Instagramen salatu zuten haien ustez diskriminazio homofobia izan zena. Handik gutxira, sare sozialak mutilen aldeko eta aurkako mezuez bete ziren. Orduan, haietako bat Gehitu GKera joan zen, Eraberean Sareak artatzeko.

Eraberean Sareak kasua jaso zuen eta jakitun zen beste jatorri bateko ezaugarri fisiko jakin batzuk izateagatik, sexu-orientazio jakin bat izateagatik edo desgaitasuna izateagatik aisialdi-lokal bateko sarbidea (edo bertan egotea) ukatzeagatik salaketa asko jasotzen direla. Izatez, Sareak halako kasu asko jaso ditu lanean aritu den urte guztietan, eta horiei esker, nola gertatzen diren jakiteko kasuistika ezagutu ahal izan dugu, baita diskriminatutako biktimek erantzuteko egiten dituzten balizko jarduketak ere.

Kasuistika horren barruan, kasu batzuetan **“onarpen-eskubidea”** deiturikoaren erabilera desagokia hauteman dugu halako jarduketak arrazoitzeko. Gogoratu behar dugu onarpen-eskubidea Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak arautzen duela. Establezimendu publikoetako jabeek edo ikuskizun eta aisialdi-jardueretako antolatzaileek sartzeko eta bertan egoteko baldintza objektiboak ezartzeko duten eskubidea da. Hala ere, arau horren 22. artikulua zehazten du baldintza horiek eta onartzeko eskubidea gauzatzeak ezin dutela inolaz ere diskriminaziorik eragin jatorriagatik edo jairolekuagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik, desgaitasunagatik, sexu-orientaziogatik, genero-identitateagatik edo erabiltzaileen beste edozein baldintza edo arrazoi pertsonal edo sozialengatik.

Egia da kasu honetan onarpen-eskubidea ez zutela erabili bikotekidea homosexuala zelako kaleratzeko. Izatez, sexu-orientazioa edo -identitatea ez da inoiz erabiltzen

lokaletan pertsoneri sartzen ez uzteko, legearen aurkakoa dela badakitelako (eta, beraz, judizializazioa ekar dezakeelako). Beste gauza bat da pub edo diskoteka batean baldintza jakin bateko bezeroak nahi ez dituztenean sartzen ez uzteko beste arrazoi batzuk erabiltzea, esaterako, beteta dagoela edo festa pribatua dela esatea. Kasu horietan, taberna batek diskriminatzen ote duen jakiteko erabiltzen den tresnetako bat **testingaren teknika empirikoa** da; hainbat pertsona tabernara sartzen ahalegintzen diren eta haien desberdintasunen arabera tratatu desberdina jasotzen duten ala ez erregistratzen da. Antera jantzita egonik tabernak heterosexualei sartzen uzten badie, baina homosexualei ez, sexu-orientaziotatik legearen aurkako diskriminazioa egiaztatuko litzateke.

Gure tabernaren kasuan, sexu-orientaziotatik diskriminazioaren salaketatik babesteko, establezimenduko arduradunak komunikatu bat bidali zion prentsari eta bertan azaldu zuen aurretik jarrera berdina izan zuela bere iritziz publikoan egiteko adierazpen afektibo gehiegizkoak zituzten bikote heterosexualekin.

Azkenik, bikoteak uko egin zion prozesuarekin jarraitzeari, baina GKEa lokalaren jabearekin bildu zen erakundearen egoitzan, eta inplikaturako alderdi guztien arteko **bitartekaritza-prozesua** planteatu zuen. Mutilek bitartekaritza horri uko egin zioten arren, antenak gogorarazi zien halako egoeretan garrantzitsua dela establezimenduan bertan erreklamazio-orria eskatzea, eta, jaso ezean, udaltzaingoari deitzea. Eman zitzaien beste gomendio bat izan zen, antzeko gertaeraren bat berriro gertatuz gero, jarduketa diskriminatzailea ikusi zuten lekuko identitatea jasotzea, administrazioaren aurrean erreklamazioa eginez gero edo epaitegietan demanda bat jarriz gero haien lekukotza eduki ahal izateko.

2. DISKRIMINAZIOA ETXE BAT ALOKATZEKO GARAIAN

S. eta senarra Afrikako bikotea dira eta jazoera gertatu zen unean alokairuko etxebizitza baten bila ari ziren Arrasaten, Gipuzkoan. Etxebizitza bat alokatzeko higiezin agentziek eskatzen dituzten baldintzak ezagutzen dituzte, eta ez dituzte betetzen. Hala ere, urriko egun horretan, higiezin agentzia batera sartu ziren eta baldintza horiek eskatu gabe, bertako

langileak esan zien une horretan ez zutela etxebizitzarik alokairuan. Dezepzioa areagotu egin zen emakumeak gerora jakin zuenean higiezin agentzia horrek bazituela etxebizitzak eskuragarri bera eta bere senarra han egon ziren egunean. Orduan, Eraberean Sareko SOS Arrazakeria elkartera jo zuten, atzerritarrak izateagatik diskriminazioaren biktimak izateaz nazkatuta eta hori ez onartzeko asmoz.

Immigranteekin eta errefuxiatuekin lan egiten dugun Eraberean sareko elkarteek antenek badakigu immigranteak alokairuko etxebizitzan merkatuko erabiltzaileak direla. Horren arrazoia agerikoa da: herrialdera iristerakoan etxebizitza bat behar dute, normalean alokairuan, behin-behinean gutxienez, immigrazio-prozesua egonkortu arte.


Alabaina, Ikuspegi Behatokiaren panoramikei esker lehen atalean ikusi dugun moduan, etxebizitzak lortzeko kolektibo batzuekiko diskriminazioa etengabeko jarduketa da, eta egunero pairatzen dute kolektibo horiek.

Egia da guztiek ezagutzen duten errealitatea den arren, oso zaila dela egiaztatzea. Horregatik, pertzepzioari buruzko inkesta horiez gain, jarduketa diskriminatzaile horien berri ematen duten hainbat ikerketa eta txosten daude testing teknika enpirikoaren bidez, establezimenduetarako sarbideari buruzko aurreko atalean azaldu dugun moduan. Izan ere, kasu honetako Afrikako bikotekidearentzat eta antzeko beste pertsonentzat ohikoena da higiezin agentziek horrelako aitzakia faltsuak ematea, zerbitzua ukatzeko. Aitzakia horien artean, batzuetan higiezin agentziek eremu horretan etxebizitzarik ez dagoela esaten dute. Beste batzuetan, etxebizitzan jabeek immigrantei, homosexuali edo ijitoi ez alokatzeko baldintza ezartzen diete.

Nola edo hala, higiezin agentziek (ez dugu ahaztu behar erakunde pribatuak diren arren publiko orokorrari zuzendutako zerbitzua eskaintzen dutela, eta ondorioz, pertsona guztien tratu-berdintasuna bermatu behar dutela) jarduketa diskriminatzaileak izaten dituzte batzuetan. Azkenik, justifikazio modura erabiltzen dute haien ingurune sozialak baldintzatu egiten dituela, eta batzuetan nagusi diren kulturek eta identitateek ez dutela auzoa kolektibo guztiekin modu berean partekatu nahi.

Ikuspegi Behatokiak *Euskadiko diskriminazioaren inguruko pertzepzio eta jarrerari buruzko inkestaren azterketa* lanean dokumentatzen du arbuio hori. Inkesta egindako 1.200 pertsonari galdera honi erantzuteko eskatu zitzaion: "Zu pertsonalki zenbateraino sentituko zinateke deseroso zure auzoan LGTBI kolektiboko pertsona bat, etorkin bat edo ijito bat izango bazenu: oso, nahiko, zertxobait, gutxi edo batere ez?". Eraitza ezin da etsigarriagoa izan: inkesta egindako 10 pertsonetatik 5 deseroso sentituko litzateke auzoan ijitoak izanez gero; 10 pertsonetatik 3 etorkinak izanez gero (are gehiago musulmanak badira); eta 10etik 1 homosexualekin, bisexualekin, transexualekin edo transgeneroekin biziz gero.

Gráfico 9. No le incomodaría nada convivir con personas de estas características (%)



Fuente: P14 "A Ud., personalmente, ¿le incomodaría mucho, bastante, algo, poco o nada tener en su vecindario a...?"

Iturria: Ikuspegi

Iritzi horiek ikusita, aztertu beharrekoa da Eraberean Sareak nola jardun behar duen bere bulegora iristen diren diskriminazio-kasuetan.

Uztailaren 12ko **15/2022 Lege** berriak, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzkoak, 20. artikuluan arautzen du diskriminazio hori, eta **debekatu** egiten du etxebizitza bat saltzeko edo alokatzeko eskaintza arbuiatzea legean aurreikusita dauden diskriminazio-arrazoiengatik, saltzeko edo alokatzeko eskaintza hori publikoa denean. Aurrerapauso handia da hori.

Hala ere, 15/2022 Lege hori diskriminazio horri aurre egiteko erabilgarria izan daitekeen arren, kasu horiek judizializatzeko zailtasunek bere horretan jarraitzen dute. Izan ere, aisialdiko edo merkataritzako establezimenduetara sartzea ukatzen duten kasuetako judizializazio-prozesuari buruz goian aipatu dugun kasuan ez bezala, hemen hiru alde hartzen dute esku:

- etxebizitzaren jabeak,
- zerbitzua eskaintzen duenak, normalean higiezin zerbitzuak.
- eta zerbitzua edo prestazioa eskatzen duen pertsonak.

Zigor Kodearen 512. artikulua zerbitzua eskaintzen duenarentzat dago pentsatuta, baina ezin zaio etxebizitzaren alokatzaileari ezarri: Beraz, salaketa higiezin agentziaren aurka baino ezin da egin, baldin eta, askotan, profesionala jabearen jarraibideak betetzera mugatzen bada. Jarduketa hori ez da justifikagarria jarduketa profesionalaren aldetik, baina zigor-prozesua zailtzen du.


Zailtasun horiek aurre egiteko moduetako bat izango litzateke etxebizitzaren arloan eskumenak dituzten administrazioak inplikatzeko, eta 15/2022 Lege berriak arlo honetan eskaintzen dituen zigorrak garatzea. Erakundeen bultzada horren adibidea Katalunia da. 2019ko urrian, Bartzelonako Udaleko Diskriminazioaren Aurkako Bulegoak herritar baten salaketa jaso zuen Idealista atarian argitaratu zuten iragarki batengatik. Bertan zioen maizterrak espainiarra izan behar zuela. Bulegoak kasua udalera bideratu zuen eta zigor-espeditenteak hasi zituen. Hasieran ezarri zuen zigorra 90.000 eurokoa izan zen. Zigorrari errekurtsioa jarri ondoren, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak 2022ko

uztailean iragarri zuen epaia eta isuna berretsi zuen. Eraberean Sarearen ustez, kasu berria izateagatik garrantzitsua izateaz gain, administrazioek halako kasuetan dituzten jarduteko aukerak frogatzen ditu.

Egia da administrazioen esku-hartzea soilik ez dela nahikoa. Diskriminazioaren aurkako **pedagogia** egitea ere beharrezkoa da, eta etxebizitzaren jabeak diren herritarrak kontzientziatu behar dira alokatzeko edo saltzeko zerbitzu publikoen bidez etxebizitza alokatzeko orduan muga diskriminatzailek ez ezartzeko.

Hain zuzen ere, jarduketa pedagogiko horiek ardatz hartuta eta S. eta haren senarraren **kasura itzulita**, Eraberean Sareak esku hartu zuen. Elkartea-antena higiezinaren agentziarekin jarri zen harremanetan eta bilera hitzartu zuen. Bilera horretan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan dauden zailtasunez eta zerbitzu publikoak hornitzen dituzten (hau da, publiko osoari zuzendutako zerbitzuak) enpresa pribatu guztiek derrigorrez bete behar dituzten aginduez hitz egin zuten. Halaber, higiezinaren agentziari gonbita luzatu zion Eraberean Sareak duela hiru urtetatik sustatzen duen **“Egin bat diskriminaziorik gabeko alokairuekin”** kanpainan parte hartzeko.

+ EGIN BAT DISKRIMINAZIOARIK GABEKO ALOKAIKUEKIN +
+ SÚMATE A LOS ALQUILERES QUE SUMAN +



ALOKATU DISKRIMINAZIOARIK GABE, AURRERITZORIK GABE ETA TURRUMURRURIK GABE
ALQUILA SIN DISCRIMINACIÓN, CON CERO PREJUICIOS Y LIBRE DE PERJUICIOS
www.euskadi.eus/erabereansarea



Jarduketa horren xedea izan zen higiezin agentziak pixkanaka kanpaina horrekin bat eginez gero sortzen den "elur-bola" efektuak diskriminaziorik gabeko giroa eragitea, eta S. eta haren senarrak eta beste etorkinek, ijitoek eta LGTBI+ kolektiboko pertsonen atak nola ixten dizkieten ez ikustea.

Beste kontu bat dira norbanakoen arteko erlazio pribatuak, higiezin agentziaren bitartekaritzarik gabe. Norbanako batek, ez higiezin agentzia batek, esaterako

Interneten alokairuko etxebizitza baten iragarkia argitaratzen badu eta etorkinak eta homosexualak onartzen ez direla adierazten badu esku hartu dezake Erabereanek? Ateak ixten dituen eta bere etxebizitza nori alokatu eta nori ez erabakitzeko garaian bere askatasuna arrazoitzen duena **norbanakoa** denean nola jokatu behar da?

Mota horretako kasu bat jaso zuen Errespetuz, GKE-atenak, LGTBI+ kolektiboko gizon bat artatu baitzuen Bilbon etxebizitza alokatu behar zioten pertsonekin haserre zegoelako:

Alokatu berri zuen gelara lekualdatzen ari zenean gertatu zen jazoera. Teorian bikote batekin eta haur batekin bizi behar zuen. Etxe-aldaketaren erdian gizona ohartu zen etxeko jabeak utzi berri zituen poltsak eta mailetak ireki eta aztertu zituela. Emakumeak haserre erantzun zion etxe horretan ez zituztela onartzen ekarri zituen sexu-jostailuak. Hitzez hitz gehitu zuen ez zuela "haiekin marikoirik bizitzerik" nahi. Eztabaida eraso fisiko batekin amaitu zen. Horren froga dira ospitaleko lesio-partea eta Ertzaintzan jarritako salaketa. Polizia etxebizitzan izan zen.

Eraberean Sareak kasu horretan lagundu zuen, eta jazoera jakin batzuetan elementu diskriminatzaileak duen garrantzia baloratzeko garaian Sareak berak dituen **zalantzak** mahai gainean jarri ziren. Hau da, kasu zehatz honetan, iruzur egin duen pertsonaren delitu-jokabidea da adierazgarria, eta ez iruzurra jasan duen pertsonaren orientazioa.

Elementu diskriminatzailea adierazgarria izan zen kasua 2022an pertsona ijito bati gertatutakoa izan zen, biktimaren etnia izan baitzen zehazki diskriminazioaren arrazoia.

Emakume batek oportetako etxebizitza bat alokatzeko iragarki partikular batera deitu zuen. Jabeak azentuaren kutsua hautematean ijitoa ote zen galdetu zion eta berak baietz erantzutean, gizonak aurpegiratu eta iraindu egin zuen ijitoen komunitatekoa izateagatik (ez baitziren ezagutzen). Etxebizitza ez ziola alokatuko esan zion.

Iraindutako pertsonak (ijitoa) Ertzaintzari deitu zion informatzeko. Agentek jakinarazi zion gorroto-delituagatik salaketak tramitatzeko aukera zuela,

baina legezko ibilbidea laburra izango zela ohartarazi zion. Azkenean, pertsonak Eraberean Sarearen aurrean egoera salatzea erabaki zuen.

Sarea harremanetan jarri zen telefonoz diskriminatzailearekin, ahozko ohartarazpena egiteko eta ekintza diskriminatzailea egin zuela jakinarazteko. Ijitoen komunitatearen aurkako gorroto-delitutzat ere har liteke ekintza. Egoera salatzeko modukoa zela ohartarazi zitzaion, berriro gerta ez zedin.

3. DISKRIMINAZIOA POLIZIAK PROFIL ETNIKOAGATIK EGITEN DITUEN IDENTIFIKAZIOETAN.

Gasteizko Zabalgana auzoko ikastetxe batetik atera berri dira lehen hezkuntzako ikasleak. Nerabeen artean 11 urteko mutil bat dago. Bere etxera abiatu zen eta bat-batean, udaltzain batek geldiarazi egin zuen. Mutilak, nahastuta, ez zuen ulertzen zer gertatzen zen. Ez zuen ezer egin. "Sahararra naizelako da?" galdetu zuen, kasua daraman GKE-antenaren bertsioaren arabera. Udaltzainek azaldu zioten bila ari ziren lapur baten antz handia zuela. Haurrari identifikazioa eskatu zioten. Atzerritarra da, jakina. Datuak jaso eta joaten utzi zioten.

Haurrak ez zuen ezer kontatu etxean. Beldur zen gurasoei zerbait gertatuko ote zitzaien. Hurrengo egunean eskolako bere irakasleari kontatu zion. Irakaslea, haserre, Eraberean Sarearekin harremanetan jarri zen (zehazki Zeharrekin), eta profil etnikoagatik poliziak norbait identifikatzeagatik salaketa jartzeko prozedurari buruz galdetu zuen. Adingabea zen gainera.

Eraberean Sareak haurraren irakaslearen telefono-dei baten bidez izan zuen kasuaren berri. Elkarrizketa horretan, sareak jakinarazi zion irakasleari beharrezkoa zela haurraren gurasoen baimena izatea ezer egin aurretik:

- Udaltzaingoarekin kontakizuna alderatzeko prozesua hasi aurretik.
- Arartekoaren Bulegoan kexa bat jartzeko bideari ekin aurretik.

- Eta **haurren eta bere profil etnikoarengatik identifikatu zuen poliziaren arteko erreparaziorako topaketa** bat antolatu aurretik.

Por miedo, por escepticismo, o por ambas razones a la vez, la familia decidió finalmente no iniciar un procedimiento de denuncia.

También decidió **no denunciar** formalmente otra víctima que reportó en 2022 identificaciones policiales por perfil étnico:

Una Emakumea dominicana vive en el municipio alavés de Agurain y coge el tren todos los días, para ir a Vitoria a trabajar. Uno de los días, unos agentes de la policía local le paran para identificarle; y cuando ella les pregunta el porqué, le contestan con cierta arrogancia: "Porque eres extranjera". Esta situación se repite varias veces.

Beldurragatik, eszeptizismoagatik edo bi arrazoiengatik, familiak ez salatzea erabaki zuen.

Halaber, formalki **ez salatzea** erabaki zuen 2022an profil etnikoaren araberako polizia-identifikazioak salatu zituen beste biktima batek:

Agurainen bizi den emakume dominikar batek egunero hartzen du trenea Gasteizera lanera joateko. Egun horietako batean, Udaltzaingoko agente batzuek gelditu egin zuten identifikatzeko eta berak zergatia galdetu zienean, harrokeriaz erantzun zioten: "Atzerritarra zarelako". Egoera hori hainbat aldiz errepikatu zen.

Emakumeak Eraberean Sareari kontatu zion egoera, baina, aipatu dugun moduan, salaketa formalik ez jartzea erabaki zuen (hala ere, etorkizunean egiteko polizia-protokoloa norbaitekin kontrastatzeko beharra izanez gero, Sareari laguntzeko prest agertu zen). Beldurra eta eszeptizismoa izan ziren nagusi erabaki horretan. Eraberean Sareak **gogoeta egin zuen jarri gabeko salaketa** horiei buruz bere Batzorde Juridikoaren bileran. Gure ondorioetako batzuk aipatuko ditugu jarraian.

Abiapuntua, oro har, poliziaren eta etorkinen arteko erlazio zaila izaten da. Oso luzea litzateke erlazio zail horretan esku hartzen duten faktoreak aztertzea, baina batzuk aipa ditzakegu.

Alde batetik, **aurreiritziak eta estereotipoak** daude. Harrera-gizartearen eta kanpotik datozenen arteko erlazioetan garrantzi handia dute, are gehiago indar polizialek pertsona horiekiko duten ikuspegian. Aurreiritzietan oinarritutako ikuspegi hori agerian geratzen da profil etnikoarengatik identifikatzen dituztenean. Eta hori Espainiako Estatuan ez ezik, beste herrialdeetan ere gertatzen da. 2010eko inkesta batean, Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziak dagoeneko hau adierazi zuen: “Espainiako iparraldeko Afrikako biztanleen % 31k adierazi zuen poliziak geratu zuela bere jatorri etnikoagatik edo etorkina izateagatik; Grezia eta Hungariako erromanien % 39 eta % 24k, edo Frantziako Saharaz hegoaldeko afrikarren % 24k”.

Bestalde, diskriminazioaren biktimentzako zuzeneko arretatik, zein herritarren plataformen eta erakundeen txostenetatik jakin ahal izan dugun moduan, badirudi atzeritarrek **konfiantza galdu** dutela sistema judizialean, sistema horrek poliziaren interesak babesten baititu askotan salaketa bat dagoenean. Plataforma eta erakunde horientzat, errealitateak argi erakusten du etorkin gazteek aukera gutxi dituztela justiziako administrazioaren babesak jasotzeko, haien edo haien senideen aurkako polizia-abusuak salatuz gero. Horregatik, arrazoi etnikoengatik gertatzen diren diskriminazio-kasuen artean % 80 ez da salatzen, eta diskriminatzen duena polizia bada, estatistika are altuagoa da.

Horren frogarik agerikoena da espainiar estatuan profil teknikoarengatik egindako polizia-identifikazioen bi kasu soilik amaitu dutela auzitegietan. Lehenengoa Rosalind Williamsen kasu ezaguna da, duela 30 urte gertatu zena, 1992an.

Bigarren kasua 2013an gertatu zen. SOS Racisme Catalunya eta la Open Society Foundations erakundeek auzi estrategikoa egin zuten Zeshan Muhammeden kasuan. Polizia Nazionalak “beltza izateagatik” identifikatu zuen hura. Instantzia judicial guztiak agortu ondoren (Auzitegi Konstituzionala barne), Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 2022ko urriaren 19an argitaratu zuen sententzian ondorioztatu zuen ez Espainiako justiziak, ez Polizia Nazionalak ez zutela Zeshan Muhammad bere arraza

edo etniarengatik diskriminatu. Sententzia horrek erakusten du profil etnikoarengatik egindako diskriminazio-kasu horiek judizializatzea oso zaila dela.

Zaila izateak ez du esan nahi judizializatu ezin daitekeenik: Poliziak identifikatzeko “beltza izatea”, “ijitoa izatea” edo “magrebtarra izatea” ezin da justifikazio edo arrazoia izan, ez 1992an, ez 2013an, ez egun. Hala ere, gaur egun oraindik “*magrebtarra izatea*” da etorkin gazte askok adierazten duten arrazoia (batez ere eguneko zati handi batean kalean ibiltzen diren mutil marokoar eta aljeriarrek), GKE-ek geratu eta miazten dituzten polizien jarduketei buruz galdetzen dietenean. Horrek polizia-jarduketarekiko eta oro har poliziarekiko mesfidantza eta aurkakotasuna areagotzen du, eta atzeraelikatu eta konpontzen zaila den arrakala sortzen du.

Horren aurrean, hainbat erakundek kezka adierazi dute profil teknikoagatik identifikatzeko jarduketa horregatik.

Gure ingururik hurbilenean, erkidegoan, urriaren 28ko **Arartekoren 7/2011 gomendio orokorra** nabarmendu behar da. 2021ean Legebiltzarrak igorritako urteko txostenean ere jasota dago, eta segurtasun-arloan jasotako keak bilduta daude, poliziaren “gorputz-erregistroekin eta bide publikoan egindako identifikazioekin eta profil arrazistarekin eta motibazioarekin” zerikusia dutenak (**Eusko Jaurlaritzako urteko txostena 2021**; 149. or.).

Estatuan, segurtasun-gaietan eskumena duen administrazioak ezagutzen ditu jazoera horiek eta, horregatik, 2021an, **Barne Ministerioko Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak** herritarren identifikazioei buruzko 2/2012 zirkularra agindu zuen. Zirkularra osatzeko **Herritarren Defentsarako apirilaren 17ko 45/2013 Gomendioak** atera zituen, profil etnikoan eta arrazan oinarritzen diren identifikazio-kontroletan oinarritutako polizia-jarduketekin amaitzeko:

- Gomendio horien bidez, Polizia Nazionalaren Kidegoak **identifikazio- eta erregistro-inprimakiak** sistematikoki erabili ahal izango ditu; bertan, identitate-kontrolpean dagoen pertsonaren etnia, arraza eta/edo nazionalitatea agertuko dira jasota (hau da, agente bakoitzak, identifikazio bakoitza pertsona bati egin ondoren, datu horiek dituen formulario hau bete behar du). Horietan identifikazioaren arrazoia idatzi beharko da.

- Identifikazio-formularioetatik lortutako datuetatik abiatuta datuak **bildu eta jarraipena egiteko estatistika-sistema** bat egitea da helburua, arraza, etnia eta/edo nazionalitatearen arabera. Izan ere, ikerketa batzuek erakusten dute (Espainian 2013an Valentziako Unibertsitateak egindakoa) profil etnikoarengatik egiten diren identifikazioak ez datozela bat delitua jazartzeko eraginkortasun handiagoarekin.

Gomendio horiek ez dira derrigorrez bete behar, baina administrazioak kontuan hartu beharko lituzke, diskriminazioaren eta gorroto-delituen inguruko **derrigorrezko prestakuntza-programen** moduan. Alde horretatik, Unijepol eta Open Society Foundations gisako polizia-erakundeek prestakuntza-ikastaroak sustatzen dituzte tokiko eta erkidegoko polizientzat, profil etnikoaren arabera identifikazioen arloan.

Horri gehitu behar diogu **tratu-berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako uztailaren 12ko 15/2022 Lege** berriak 18. artikuluan jasotzen duela Segurtasun Indar eta Kidegoek justifikazio objektiborik gabe profil diskriminatzaileak erabiltzea ekidindo dutela, eta segurtasun pribatuko jarduerak edo zerbitzuak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoei ere ezarriko zaie.

Lege berri horren eta goian azaldutako gomendioen xedea da, gure kasura itzulita, udaltzaingoak gaizkile bat ez ikustea kalean mutiko arabiar batekin gurutzatzen denean eta profil etnikoetako haurrak ez identifikatzea eskolatik ateratzen direnean.

Kasuarekin jarraituz, haur arabiar horren familiak Erabereanek Udaltzaingoaren aurkako salaketarik ez jartzea erabaki zuen arren, hauraren irakasleak ezer egin gabe ez geratzea erabaki zuen. 2021eko uztailaren 7an, Gasteizko Udaleko Herritarren Segurtasun Batzordeko **herritarren txandan** hartu zuen hitza gertaturikoa salatzeko. Bere txandan, irakasleak hau planteatu zuen: “bila ari ziren susmagarria mutil ile-horia izango balitz, itunpeko ikastetxe bateko jertsearekin, poliziak itunpeko ikastetxe horretako jertsea zeramaten mutil ile-horiak geldituko lituzke?” Eta honakoa gehitu zuen: “Gure eskolan (jatorri anitzeko ikasleak daude) irakasleek beti erakutsi diegu haurrei kalean arazoren bat badute poliziarengan jo behar dutela, batez ere Udaltzaingoarengana. Nik lantzen dudana komunikazio-ardatz hori erabat apurtu da”.

Hitzartzeari erantzunez, Maria Angeles Gutierrez Herritarren Segurtasun Saileko ordezkariak heltzen zitzaizkion kasuen jarraipena egiteko konpromisoa hartu zuen . Hitzez hitz, adierazi zuen herritar edo kolektibo batek ulertzen duenean Udaltzaingoaren jarduketa agian ez dela zuzena izan, oso pertsona irisgarriak direla, eta interesgarria litzatekeela berehala haiekin harremanetan jartzea zer gertatu den ikusteko.

Komunikazio-bide horretarako atea zabalduta, Eraberean Sareak kasua itxi zuen eta bide hori sartu zuen jarduteko eta erantzuteko protokoloan, zehazki Arabako hiriburuan eta, oro har, EAE osoan etorkizunean izango diren profil etnikoaren arabera identifikazio-kasuetarako.

IKUSPEGI FOTOGRAFIKO HUMANISTAREN ONDORIOAK

Aurreko atalean garatutako kasu horiek eta Eraberean Sareak ateratako 123 irudiak ikusita, hauek dira **2021 eta 2022ko kasuen inguruan eta Sareak izan duen esku hartzeko moduan inguruan ateratako ondorioak:**

1) SALAKETA GUTXI: MEREZI AL DU SALATZEA?

Lehen plano horiek erakusten diguten lehen gauza diskriminazio horren biktima askok diskriminazioa jorrazteko/salatzeko/erreparatzeko prozesuekiko sentitzen duten apatia, arbuioa, beldurra edo konfiantza falta da. Horregatik ez dute salatzen, edo diskriminatuak izateagatik erreparazioa lortzeko saiakeran etsi egiten dute.

Hori erakusten du profil etnikoarengatik Gasteizko Udaltzaingoak identifikatu zuen haur arabiarraren familiak, poliziaren jarduketa horregatik salaketarik ez jartzea erabaki baitzuen. Baita Donostiako kafetegi batean musukatzeagatik ohartarazi zituzten bi mutil homosexualek ere, erreklamazioarekin aurrera ez jarraitzea erabaki baitzuten. Eta hori erakutsi du Arrasateko higiezin agentzia batek diskriminatu zuen bikote migratzaileak ere. Sareak frogarekin arazoak egongo zirela jakinarazi zienean ez salatzea erabaki zuen, ezingo zutelako frogatu higiezin agentzian izan ziren egunean alokatzeko etxebizitzak eskuragarri zeudela.

Salaketa ez jartzeko joera oso handiaren aurpegiak dira, eta denbora daramagu datu kuantitatiboak jasotzen.

- Goian aipatutako ikuspegi Behatokiaren txostenean aipatzen da diskriminazioa jasan duten pertsonen % 5ek soilik salatzen duela.
- Txosten honetan aipatzen den etnia edo arrazagatiko diskriminazioarekin amaitzeko kontseiluak egindako ikerketan jasota dago arrazagatik edo etniagatik diskriminatuak izan diren pertsonen % 18,2k soilik jarri duela kexa, erreklamazio edo salaketaren bat.
- Oinarrizko eskubideen Europako Agentziaren EUMIDS-II azken inkestaren arabera, gutxiegitasun hori ondorioztatzen da salatzaileen ehunekoa % 20tik beherakoa delako.

Salaketen tasa baxu hori zuzentzeko, Eraberean Sareak gorroto arrazistaren, xenofoboaren, ijitoen aurkakoaren eta LGBTIfobikoaren aurrean jarduteko kanpaina eta gida aurkeztu zuen 2022ko abuztuaren 1ean, Biltzen Gizarteratzeko eta Kulturen Arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren bitartez, eta 2021ean eta 2022an zehar diskriminazio-ekintzaren bat jasan duten pertsonak salatzerara gonbidatu ditu, **biderik egokiena bilatzen** lagunduz eta erreparazioa eskainiz. Izatez, epaitegietara joaten diren kasu gehienak salatzailearen interesen aurkako epaiarekin amaitzen direla jakinda, saretik nabarmendu nahi izan dugu beti ez dela beharrezkoa epaitegira joatea, erreparazioa etor daitekeela agente diskriminatzailearen benetako barkamenetik, eta horretarako bitartekaritza-prozesua egiten da.

Hautatutako bidea edozein izanik ere, Eraberean Sarea osatzen dugun erakundeentzat garrantzitsuena da biktima bakoitzari helaraztea salatzea merezi duela, eta haien kontakizuna errespetuz entzungo dugula. Eta hori ez da huskeria. Kasu askotan biktimak enpatiaz **entzutea** nahi du. Alde horretatik, Eraberean bezalako sarea izatea aukera ona da haien bizipenak azaltzeko (ezin dugu ahaztu diskriminazioa batez ere jarduketa diskriminatzaile bat pairatu izanaren pertzepzioa dela). Gero, tresna egokiekin erantzun bat ematen ahalegintzeko lana etorriko litzateke.

2) DISKRIMINAZIOA SALATZEKO TRESNAK: ZIGOR-BIDEA, BAINA EZ HORI BAKARRIK.

2021ean eta 2022an zehar, aurreko urteetan bezala, Eraberean sareak berretsi du diskriminazioak salatzeiko tresnen kutxa askotarikoa eta zabala dela, eta ez dela soilik **zigor-tresnetara** mugatzen. Eta gorroto-delituei aurre egiteko tresna nagusiak Zigor Kodean dauden arren, zigor-eskubidearen beste arlo batzuetan diskriminazio-ekintzak zigortuak izan daitezke eta izan behar dira. Horregatik, Eraberean Sareak tresnen sorta zabaltzeko ikuspegiarekin lan egin izan du beti, eta **justizia errestauratiboan eta bitartekaritzan** formazioa jasotzen ari da.

Erantsi behar dugu tratu-berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako uztailaren 12ko 15/2022 Lege berriak tresna interesgarriak eskaintzen dituela, eta Eraberean sareak dagoeneko erabil ditzake diskriminazioari aurre egiteko. Araudi horren harira, erregistratutako 121 kasuen kudeaketan beharrezkoa da **administrazioak rol aktiboagoa izatea jarduketa diskriminatzaileak fiskalizatzeko**, eta etorkizuneko jarduketak ekiditeko eragina izan dezaketen isunak jartzeko gaitasuna areagotzea. Horretarako, administrazioak alertak izan ditzake, Eraberean Sarearen Batzorde Juridikoaren barne-bileretan txosten hau aztertzen aritu garen bi urtetan zehar baloratu dugun moduan.

3) ALERTA-SISTEMAK BEHAR DITUGU: ADMINISTRAZIOA ETA NORBANAKOAK.

Zeri egiten diogu erreferentzia Eraberean Sarearen Batzorde Juridikoak alerta-sistemak ezartzeko beharra dagoela proposatzen dugunean? Alerta-sistemarekin esan nahi duguna da diskriminazioaren alorrean ikuspegi zehatza izan behar duela. Eta begirada hori prestakuntza egokiarekin lortzen da, besteak beste. Prestakuntza hori sustatzen dute dagoeneko arlo honetan inplikaturik dauden hainbat sailetan, baina guztietara zabaldu beharko litzateke. Bi arrazoirengatik.

- Alde batetik, administrazioaren jardunaren printzipioetako bat tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza delako.

- Eta, bestalde, administrazioa delako pertsonak erabiltzen dituzten prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea. Hortaz, posizio pribilegiatua du diskriminazio-egoerak hautemateko.

Izatez, Sareak artatutako kasu batean, immigranteak gizarte-langileari kontatu zion higiezinaren agentzia batean esplizituki esan ziotela etxebizitzarik ez ziotela alokatuko atzerritarra izateagatik. Une horretan alerta bat sortu beharko litzateke, esaterako protokolo baten bidez jarduketa batzuk abian jartzeko, eta Eraberean Sareak zeregin garrantzitsua eduki ahal izango luke.

Zailagoa da enpresekin edo norbanakoekin alerta-sistemak ezartzea. Ez ordea administrazioarekin, behartuta baitago halako egoerak hautematera, baina norbanakoen arteko erlazioek **pedagogia** gehiago behar dute. Lanean, 2021eko eta 2022ko diskriminazio-egoeren beste arlo bat aipatzearen, alarmak ezartzea bideragarria izango litzateke soilik enpresak **erantzukizun sozialerako** ikuspegia badu.

Hortaz, bide luzea dago egiteke eta Eraberean Sareak bidea egiten jarraitu nahi du.

Azken bi urteotan egin duen moduan egin nahi du, Abdouekin, Aliciarekin edo M.-rekin batera, Eraberean Sarearen Urteko Txostena hasi dugun pertsonekin batera.

Gure helburua da 2023ko argazkietan Abdou, Alicia eta M. diskriminazioaren biktima gisa ez ateratzea (ONCEren atean edo garbiketa produktuen dendaren atean, edo txakurren ile-apaindegiko lanpostuan), eskubide eta betebeharrak berdinak dituzten biztanle modura espazio publiko eta pribatuetan sartzen baizik.

5. ERABEREAN SAREAK
ARTATUTAKO PERTSONEI
EGINDAKO ELKARRIZKETAK

“IJITOEEN AURKAKO JARRERA ETA SARE SOZIALAK” ARTIKULUA

“Ijitoen aurkako jarrera arrazakeria mota espezifiko bat da, arraza-nagusitasuna oinarri duen ideologia, gizatasuna kentzeko modu bat eta arrazakeria instituzional mota bat, diskriminazio historikoak sustatua. Jarrera hori, besteak beste, modu honetan jartzen da agerian: indarkeria, beldurraren diskurtsoa, esplotazioa eta diskriminaziorik nabarmenena”

(ECRIren Politika Orokorraren Gomendioa, 13. zenbakikoa, ijitoen aurkako jarreraren eta erromanien/ijitoen aurkako diskriminazioen aurkako borrokari buruzkoa).

Definizio horren arabera, ijitoen aurkako jarrera eremu desberdinetara zabaldua dago: eremu politikoa, soziala eta instituzionala. Sare sozialetan ere sarri agertzen da. Neska ijito gaztea naiz eta ijitoen aurkako jarrera borrokatzen dut sare sozialetan. Nevipen Ijito Elkartearen partaide naiz, ijitoekin lan egiten duen gizarte-elkartea baita. Elkartea hori, gainera, Eraberean Sarearen barruan dago, Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako Sarean, hain zuzen. Nevipen-en eta Eraberean Sarearen bitartez, Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko bi kongresuetan parte hartu dut, baita sare sozialetan gorrotoari aurre egiteko jardunaldi batean ere. Ekintza horiekin, eta beste hainbatekin, aukera izan dut neure burua prestatzeko eta ikasteko. Halaber, Shukaripen ekimenean parte hartzen dut; ekimen hori WhatsApp talde batekin sortu zen eta bertan Espainia guztiko emakume ijito gazteek iritziak partekatu eta gaiak eztabaidatzen ditugu.

Talde horretan elkar ezagutu eta bizi izandako egoerei buruz hitz egin ahala, konturatu ginen gutako gehienok bizipen eta sufrimendu berberak izan ditugula, ijitoak izateagatik. Taldea sortu zenetik helburua garbia izan zen, hau da, emakume ijitoek bultzatutako plataforma ekintzaile bat sortzea sare sozialetan. Horrela jaio zen gure Instagram-eko kontua, eta gero Facebook-ekoa. Bertatik, #lasgitanastenemosvoz eta ¿Qué piensas gitana? kanpainak burutu ditugu, besteak beste. Elkarrizketak ere egin izan ditugu egunkarietan, edo Instagramen, zuzeneko formatuan. Martxoaren 8aren harira bideo bat egin genuen eta hor Shukaripen-eko zenbait partaide ahalegindu ziren gizartearen zenbait aurreiritzi eta estereotipo desegiten, Twitter plataforman tweet moduan agertu direnak, alegia. Shukaripen-etik bideratzen diren kanpaina eta ekintza guztiek helburu bat dute: gu guztiongan eragina duen ijitoen aurkako jarrerari aurre egitea sare sozialetan.

Emakume ijito gaztea naizen aldetik, ijitoen aurkako jarrera jasan dut zenbait arlotan. Nolanahi ere, aitortu behar dut nire kasua desberdina dela: nire ezaugarri fisikoak eta nire “heziketa ona” direla eta (horrela justifikatzen zuen gizartearen gehiengoak) ez naute ijitoekin lotzen eta, lotura hori eginda ere, “lasaitzen” naute, “zu ez zara haien modukoa”, “ez duzu haietako bat ematen, ez larritu” eta antzekoak esanda. Halako adierazpenak direla eta, beti izan dut ideia bat bueltaka nere buruan, hau da, akaso arrazoi zutela eta, esaten zidaten modura, ni ez nintzela hain ijitoa.

Shukaripen-en sartu arte, nik entzundako kontakizunak, beste emakume ijito batzuenak, bizitza-istorioak ziren, eta horietan, ijitoen aurkako jarrera honelakoa zen: ezin zuten etxebizitzarik alokatu, ezta dendetara joan ere norbait atzetik segika izan gabe. Momentu horretara arte, nire bizipenek ez zuten zerikusi handirik nire *lehengusinek* kontaktzen zituzten pasadizo mingarri horiekin, baina Shukaripen-en sartzeaz bat konturatu nintzen ez nintzela kasu bakana, eta nire antzera, ijitotzat hartzen ez zituzten emakume ijito asko zegoela, niri bezelako komentarioak egiten zizkietenak. Orduantxe konturatu nintzen

bizitzan zehar entzundako komentario horien ondorioz ez nuela nere burua emakume ijitotzat identifikatzen.

Gaur egun, nire ikas-prozesuari esker, badakit ijitoa izateko ez duzula zertan izan estereotipoak agintzen duen modukoa, hau da, munduan zenbat emakume ijito dauden, horrenbeste modu dago emakume ijito izateko. Nire janzkera, bizimodua, hizkera eta orrazkera (antza, gure mototsengatik ezagutzen gaituzte) ez ziren sartzen emakume ijitoei buruz zuten iruditerian; horregatik ez ninduten ijitotzat hartzen eta, ondorioz, zoriontzen ninduten ijitoa ematen ez nuelako. Ikasi dudanari esker eta hori guztia hausnartu ondoren, konturatu naiz nik jasan dudana ere ijitoen aurkako jarrera modu bat dela. Eta horrela da, sinistarazi didatelako ijito izatea txarra dela, ez nukeela horrekin identifikatu behar, eta ijito itxura ez izatea, berriz, ona dela. Hartara, neure komunitatea mespretxatu egiten nuen, harro ez egoteko moduko zerbait balitz bezala.

Azkenik, azpimarratu nahi nuke ijitoen aurkako jarrera horrek niri ez ezik nire gertuko senideei ere eragin diela. Nire amak, nire lehengusinek eta izebek ijitoen aurkako jarrera jasan dute zenbait arlotan, hala nola etxebizitzan edo enpleguan, eta diskriminazio- tratua jaso dute askotan. Euri esker naiz ni gaur egun naizen modukoa, eta aipatu nahi nituzke ekimen honetan ezagutzen ari naizen emakume ijito guztiak, bai eta eskerrak eman ere. Eskerrik asko erakusteagatik askotarikoak garela eta gitarteak gutaz duen irudia okerra dela.

Matxalen Aznar Jiménez (Nevipen)

LANEKO ABUSUAREN BIKTIMA IZANDAKO MIGRATZAILE BATZUEI ELKARRIZKETA

2021eko egun batean bost pertsona etorri zitzaizkigun CITEren bulegora. 20 eta 70 urte bitartekoak ziren, eta jatorri desberdinetakoak: bi Marokokoak ziren, bat kolonbiarra, beste bat peruarra eta beste bat Bangladesh-ekoa. Guztiak, bat izan ezik, egoera administratibo irregularrean zeuden.

Urduritasun handiz azaldu ziren, pentsatzen zuten eurek ez zeukatela eskubiderik ezer eskatzeko, ez baitzuten inolako agiririk, Espainian legezkoak zirela eta eskubideak zituztela esaten zuenik.

Lanean jasandako abusuez nekatuta, nondik edo handik adorea atera zuten eta CITE. CCOOra etorri ziren informazio eske (CITE.CCOO Eraberean Sarearen barruan dagoen elkarte da). Jakin nahi zuten zer egin zezaketen bizitza errazagoa izateko, eta laneko eginbeharrak betetzeko, egunero zer gertatuko ote zaien beldurrez egon gabe.

Biktitek adierazi zuten gutxienez 12 orduko lanaldiak egiten zituztela, baita 24 orduko lanaldi maratoiak ere, eta nagusiak behartzen zituela arrats-gaueko lanaldiak betetzera. Adierazi zuten, halaber, nolakoa izaten zen lanean jasaten zuten tratua: irainak, "ez zara gauza ezer egiteko", "gutxiago ordaindu beharko nizuke".

Euren bizipenak kontatu zizkiguten. Biktimetako bat furgoneta batean bizi zen lantokiaren ondoan; hura erabili ahal izateko, gainera, 1.500 € ordaindu behar izan zituen eta diru hori soldatetik kentzen zioten.

Soldatak ere legez kontrakoak ziren. Biktima guztien esanetan, ordainketa egindako lanaren arabera izaten zen: 20 kilo baratxuri edo tipula zuritzeagatik, 1, 2 edo 3, produktuaren kalitatea aintzat hartuta.

Mediku zerbitzura joatea ere mugatu egiten zieten. Sarri ebakiak egiten zituztenez, Osasun zentrura joan behar izaten zuten, eta, halakoetan, debekatua zuten lesioa nola egin zuten esatea. Zer esanik ez, sendatzeko behar zuten denbora ere ez zen errespetatzen; izan ere, lanik egiten ez bazuten ez zuten inondik ere kobratzen.

Esan ziguten, gainera, nagusiak nahiago zuela pertsona irregularrak kontratatzea. MERCABILBAOra joaten zen, eta han beti aurkitzen zuen edozertan lan egiteko prest zegoen jendea, beharrak eraginda; izan ere, euren jatorrizko herrian familia dute eta hango gastuak ez ezik hemengoak ere ordaindu behar dituzte. Gauzak horrela, nagusia lan bila ari zirenei hurbiltzen zitzairen, dokumentaziorik zuten ala ez galdezka, eta paperik gabekoak aukeratzen zituen soldata okerragoak ordaintzeko.

Euren bizipenak kontatuta, Eraberean Saretik harremanetan jarri ginen Polizia Nazionalaren atzerritarren brigadarekin eta kasuaren berri eman genien, gertakariak delitu izan zitezkeelakoan.

Haiek Lan-inspekzioarekin elkarlanean bisita bat antolatu zuten lantokira.

Bertan lau langile aurkitu zituzten modu irregularrean lanean, arauz kanpoko baldintzetan: ez eskularru berezirik, ezta babesteko betaurrekorik ere; gainera, lanerako toki egokirik ere ez, lurrean kutxa batzuetan eserita lan egiten baitzuten.

Salaketa jarri ondoren, bosgarren langilea bertaratu zen Eraberean antenaren bulegoetara. Lantegi bereko langilea zen, 15 urte zeramatzan lanean kontraturik gabe baina ikuskapena egin zen egunean ez zegoen lantokian osasun arazoengatik. Berak ere salaketa jarri nahi zuen.

Gaur egun, kasu hau Bilboko instrukzio-epaitegian dago, eta gerentea libre utzita dago karguekin.

Uste duzue hauek gertakari bakanak direla?

Ez, migratzaileek, diru premia dela eta, paperik gabe lan egin beharra daukate, lan-baldintza prekarioak onartuta.

Enplegatzaileak egoera horretaz baliatzen dira etekina ateratzeko, lanaldi luzeagoak eta soldata txikiagoak eskainiz, inspektzioa eta polizia ez konturatzeko moduko ordutegietan.

Eraberean sareak babestuta sentitu zara?

Bai, aurkitu dugu nork aholkua emango eta lagunduko, behintzat. Antenaren arreta gertukoa izan zen, ziurtasuna eman ziguten, konfiantza, beldurra kendu eta irtenbideak eman zizkiguten; itxaropentsu gaude gure egoera aldatu daitekeela eta konturatu gara eskubideak ditugula, legezko dokumenturik ez izanda ere.

Horrez gain, nora joan gaitezkeen esan digute; izan ere, salaketaren ondorioz, lanik gabe eta dirurik gabe geratu ginen, eta laguntza (ostatua, janaria, ikasketak...) eman diezaguketen beste zentro edo erakunde batzuetara joaten ere lagundu digute.

Zergatik aukeratu duzu espainia migratzeko?

Hizkuntzagarik [pertsona latinoen esanetan], eta aukera hobea delako, gure herrian miseria handia dago eta.

[Beste hizkuntzaren bat dutenen esanetan] Etorkizun hobea izateko eta familiei lagundu ahal izateko.

Sarrera jotzea aholkatuko zenioke egoera berean dagoen beste migrante bati?

Bai, laguntza eta aholkua ematen dizkigutelako.

Prozesu honetan egon al da ezer dezepzionatu zaituenik? Zer uste duzu hobetu behariko litzatekeela?

Prozesu judiziala oso motela da; izan ere, luze daramagu ebazpenaren zain eta ez dugu epe motzean horren amaiera ikusten.

Justizia motelegia iruditzen zait eta, gainera, ez dute inolako laguntzarik ematen dokumentazioa lortzeko edo bizimodua ateratzeko.

Nolako eragina izan du zuregan gertakari honek?

Ikasi dut, etsipenak jota egonda ere, badagoela norbait laguntzeko prest eta ez nagoela bakarrik.

Orain burua altxatuta ibili naitekeela sentitzen dut eta ez dudala beldurrik izan behar.

Orain nola zaude?

Ondo, ez nagoela bakarrik sentitzen dudalako; hala ere, ziurgabetasun handia daukat, gauzak aurrera doaz baina oso motel.

Zer emaitza espero duzu?

justizia egitea, gizon horrek halakorik berriz inori ez egitea, pertsonak gara eta errespetuz tratatuak izatea merezi dugu.

Elkarrizketaren egilea: Mayra Colado (CITE.CCOO)

LGTBIFOBIAK ERAGINDAKO ERASO BATEN BIKTIMARI ELKARRIZKETA

Iker, Erreneriako mutil bat, oporretan zegoen Extremadurako herri batean, 2021eko abuztuan.

Egun batean, taberna bateko terrazan eserita zegoela lagun batekin, pertsona batzuk bertaratu eta Ikerren laguna iraintzen hasi ziren, bere sexu-orientazioagatik.

Ikerrek, zalantza izpirik gabe, bere laguna defendatu zuen, persona haiei esanez pentsamolde itxia zutela, eta, orduan, Ikerri ere eraso egin zioten: halako kolpea hartu zuen aurpegian, lurrera erori zen, eta behin lurrean, kolpe gehiago eman zioten.

2021eko azaroan Iker Gehitu elkartera joan zen, bere amarekin batera. Bertan artatu zituzten biak. Elkarte hori Eraberean Sarearen partaide da (Eraberean, Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako Sarea). Une hartan, etsipena baino ez zuten sentitzen ama-seeek; izan ere, ez zuten lortu eraso ikusi zuten pertsonen artean bakar batek ere euren aldeko testigantza ematea.

Gehituk, Eraberean Sarearen antena den aldetik, kasua bideratu zuen eta, horri esker, ikerketa sakonagoa abian jartzea lortu zuen. Gaur egun kasua zabalik dago eta epaiketaren zain daude.

Zer-nolako oroitzapena duzu iazko gertaerez?

Iazko gertaerak oso gogoan ditut oraindik, egoera traumatikoa izan zen niretzat eta nire familiarentzat.

Uste duzu zurea kasu bakana izan dela?

Nik bizi izan nituen bezalako gertaerak sarri gertatzen direla uste dut, eta bakarrik bukaera tragikoa dutenean jasotzen dituzte komunikabideek.

Zure ikuspuntuaren arabera, nola azaldu horrelako gertaerak?

Nik ezin dut ulertu pertsona batzuek beste pertsona bati hori egitea sexu-orientazio desberdina izate hutsagatik, hau da, "normaltzat" hartzen denaren desberdina, baina, zoritxarrez, badakigu XXI. mendean oraindik badaudela horrelako pertsonak: azaleko eta aurreiritziz betetako pentsamoldearekin.

Nola aldatu da egoera igarotako denboran?

Nire bizitza lehen bezalakoa da, xehetasun batzuk aldatu dira, adibidez, jai-giroan kontu handiagoz ibiltzen naiz...

Garai hartan, lagundua, babestua sentitu zinen?

Bai, zorionez, nire familiak eta lagunek bizi guztian lagundu didate eta oraingo honetan ere bai, ez nuen besterik espero. Nire abokatuak eta Gehitu elkarteak ere lagundu didate.

Eraberean Sareari dagokionez, nolakoa izan zen lehen harrera?

Nire ama izan zen Gehiturekin harremanetan jarri zena, bertan Jokin Esnaola ezagutu zuen. Jokin lehenengo momentutik arduratu da, bai nire kasuak epaitegian izan duen ibilbideaz, baita nire egoera emozionalaz ere. Pertsona aparta da, beti besteei laguntzeko prest.

Zer espero zenuen Sareara jo zenuenean? Bete al dira zure itxaropenak?

Ez nuen elkarteaz ezagutzen, baina gaur egun oso lagunduta sentitzen naiz.

Zein izan da Sarearen jarduerak?

Jokin lehen momentutik arduratu da, nitaz interesatu zen eta laguntza emozionala eta judiziala eskaini zigun. Orain ere harremanetan jarraitzen du nire abokatuarekin, prozesuaren bilakaeraren berri izateko.

Badago zerbait faltan bota duzuna edo beste modu batera egitea nahiko zenukeena?

Ez, ez dut ezer faltan bota, kontrakoa, Gehitu hor egon da hasieratik eta jarraitzen du hor egoten.

Zertan da zure kasua gaur egun?

Nire prozesua geldirik dago orain; izan ere, Justizia Extremaduran nahiko motel dabil.

Espero dut epaiketa laster izatea eta amesgaizto hau ahaztu ahal izatea.

Nola sentitzen zara gaur egun?

Ondo nago, ondoez fisikoak eta mentalak erabat sendatuta, eta uste osoa daukat berriz egoera hartan banengo berdin jokatu nukeela.

Zure ustez, zer neurri hartu beharko lirateke horrelako egoeretan?

Uste dut zigor judizialak gogorragoak izan beharko liratekeela, horrelako egoerak berriro gerta ez daitezen eta dagoeneko hori jasan dutenei babes emateko. Onartezina iruditzen zait halako delituak egiten dituztenak zigorrik gabe geratzea.

Zer esango zenioke egoera berean dagoen pertsona bati?

Lasai egoteko esango nioke, egin beharrekoa egin duela eta justiziak konponduko duen itxaropena izateko (beti modurik egokienean jarduten ez badu ere).

Nola eragin dizu gertatutakoak? Zerbaitetan aldatu zaituela sentitzen duzu?

Lehen esan bezala, orain kontu handiagoz nabil diskoteketan edo tabernetan, ezezagunekin harremanak egiten ditudanean. Hori da aldaketa handiena.

Zerbait gaineratu nahi al duzu?

Eskerrak eman nahi nizkieke, nire izenean eta nire familiarenean ere, prozesu gogor honetan babestu nauten guztiei eta, bereziki, Gehituri, euren baliabide guztiak nire esku jarri dituztelako kasu honi irtenbide bat aurkitzeko. Espero dezagun laster amaitzea.

Elkarrizketaren egilea: Jokin Esnaola (Gehitu)